



AMAIERAKO EBALUAZIO-TXOSTENA

2020

Gobernantza eta
Berrikuntza **Publikoko 2020**
Plan Estrategikoa

Plan Estratégico de
Gobernanza e Innovación
Pública 2020



Aurkibidea

Aurkibidea	2
Sarrera.....	4
Helburu estrategikoen eta ardatzen araberako jarraipena.....	9
1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea	13
1. ardatzaren helburuak.....	14
1. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak	14
1. ardatzeko proiektuen egungo egoera	25
Inbertsioa 1. ardatzean	26
1. ardatzeko adierazleak.....	27
2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna.....	29
2. ardatzaren helburuak.....	30
2. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak	30
2. ardatzeko proiektuen egungo egoera	33
2. ardatzeko adierazleak.....	34
3. ardatza. Herritarrekiko harremanak	35
3. ardatzaren helburuak.....	36
3. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak	37
3. ardatzeko proiektuen egungo egoera	48
3. ardatzean egindako inbertsioa	48
3. ardatzeko adierazleak.....	49
4. ardatza. Integritatea	52
4. ardatzaren helburuak.....	53
4. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak	53
4. ardatzeko proiektuen egungo egoera	56
4. ardatzean egindako inbertsioa	56
4. ardatzeko adierazleak.....	57
5. ardatza. Berrikuntza	58
5. ardatzaren helburuak.....	59



Ardatzeko proiektuetako mugari, produktu eta lorpen garrantzitsuenak	59
5. ardatzeko proiektuen egungo egoera	64
5. ardatzean egindako inbertsioa	64
5. ardatzeko adierazleak.....	65
6. ardatza. Kudeaketa aurreratua.....	66
6. ardatzaren helburuak.....	67
6. ardatzeko mugari, produktu eta lorpen garrantzitsuenak.....	69
Antolamendua egokitzea.....	69
Eraldaketa digitala.....	76
Aurrerabide	82
Administrazioen arteko lankidetz.....	85
Pertsonak	102
6. ardatzeko proiektuen egungo egoera	107
6. ardatzean egindako inbertsioa. Kudeaketa aurreratua.....	109
6. ardatzeko adierazleak.....	110
PEGIP 2020ko proiektuen gauzatze egoeraren eta balorazioaren laburpen orokorra.....	114




Sarrera

Gobernu Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 17ko Akordioak xedatzen duenez Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 plan estrategikoaren (PEGIP 2020) jarraipena eta ebaluazioa txosten hauetan islatuko da:

- Hurrengo urteko urtarrilean Planaren betetze mailari buruzko **urteko jarraipen txostena**.
- **Tarteko ebaluazio txostena**.
- **Amaierako ebaluazio txostena**.

Txosten horietan, lortutako emaitzen eta ezarritako helburuen betetze mailaren berri emango da, eta adierazleen sisteman eta aginte taulan oinarrituko da.

PEGIP 2020ren **antolaketa eredua** Plana gauzatzeaz arduratzen diren proiektu talde batzuek osatzen dute, bai eta plana zuzentzeaz, koordinatzeaz, jarraipena egiteaz eta eguneratzeaz arduratzen diren organo batzuek ere.



Hauak dira **zuzendaritza, koordinazio eta jarraipen organoak**:

- Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea.
- Sailarteko Batzordea.



- Planaren talde teknikoa.

Jarraian, organo horietako bakoitzaren **osaera eta erantzukizunak** deskribatzen dira:

Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea	
Kideak	Funtzioak
<ul style="list-style-type: none">- Erakunde Harremanetarako sailburuordea- Araubide Juridikoaren sailburuordea- Funtzio Publikoko sailburuordea- Ekonomia eta Europako Funtsetako sailburuordea- Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendaria, KEB- Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria- Funtzio Publikoko zuzendaria- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu zuzendaria- Koordinazioko zuzendaria- Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria- Aurrekontuen zuzendaria- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Komunikazio aholkularia	<ul style="list-style-type: none">- Planaren sustapena eta jarraipena- Jarduteko estrategiak definitzea- Gatazkak konpontzea eta gorabeherak kudeatzea- Mugarriak eta entregatzekoak onartzea- Planaren alderdi guztien koordinazioa



Sailarteko Batzordea	
Kideak	Funtzioak
<p>Presidentea: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako sailburuordea.</p> <p>Kideak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria edo gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen organoaren burua.- Lehendakartzako Zerbitzu zuzendaria edo Lehendakartzako eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Zerbitzu zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saileko Zerbitzu zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.	<ol style="list-style-type: none">1. Gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloko zuzendaritza plangintza ezartzea.2. Publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzeko arloan jarduteko jarraibideak, protokoloak eta irizpideak proposatzea, batzordea atxikita dagoen saileko titularrak Gobernu Kontseiluari proposa diezazkion, onar ditzan.3. Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren konpromisoen hedapena sustatzea.4. Politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa bultzatzea, elkarlanaren eta kontu-ematearen ikuspegitik, haien emaitzei eta eraginei dagokienez.5. Indarrean dagoen araudiak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztientzat ezartzen dituen publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren zereginak koordinatzea.6. Nazioarteko gardentasun indizeetan lidergoa sendotzeko behar diren jarduerak bultzatzea.7. Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren izapidetzea koordinatzea eta jarraipena egitea, ahalik eta azkarren eta kalitaterekin handienarekin erantzungo zaiela bermatzeko.



<ul style="list-style-type: none">- Hezkuntza Saileko Kabinete eta Komunikazioko zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Osasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria edo Osasun Sailean eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Kabineteko eta Komunikazioko zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.- Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu zuzendaria edo sail horretan eginkizun horizontal edo zeharkakoak dituen organoaren burua.	<p>8. Informazio publikoa kudeatzeko eta argitaratzeko bitarteko, plataforma eta garapen informatikoen erabilera partekatua sustatzea.</p> <p>Zehazki, PEGIP 2020an, batzorde horrek honako hauek zainduko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">- Proiektuaren barne komunikazioa ziurtatzea.- Proiektua sailetan hedatzen laguntzea.- Saitetako eragileen lankidetzak koordinatzea.- Jardun arloen arteko balizko sinergiak aprobetxatzea.
---	--



Planaren talde teknikoa	
Kideak	Funtzioak
<ul style="list-style-type: none">- Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren proiektuen arduraduna.- Zuzenean Zerbitzuko arduraduna.- Berrikuntza Publikoari Laguntzeko Unitatearen arduraduna.- Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuko arduraduna.- Funtzio Publikoko teknikaria.- Gobernantza Publiko eta Administrazio Elektronikoko Aholkularitza Juridikoaren arduraduna (sortzen bada eta proposatutako lanpostu eredia betetzen bada).- Koordinazio Zuzendaritzako teknikaria.- Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako teknikaria.- Aurrekontu Zuzendaritzako teknikaria.	<ul style="list-style-type: none">- Planaren alderdi teknikoen koordinazioa eta jarraipena.- Planaren jarraipen eta ebaluazio txostenak egitea.- Planaren jarraipen operatiboari dagozkion edukiak lantzea eta jarduerak kudeatzea.- Lantaldeak bateratzea.

Horrez gain, Planaren proiektu bakoitzak proiektu talde espezifiko bat izan du. Talde horretan, proiektuak eragindako eta inplikaturako arloetako ordezkariak parte hartu dute, eta, horrela, proiektuaren koordinazioa eta gauzatze egokia bermatu da ezarpen eremu guztietan.



Helburu estrategikoen eta ardatzen araberako jarraipena



Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren esparruan egindako aurrerapenak aztertu aurretik, ardatz bakoitzak PEGIP 2020ren helburu estrategikoekin duen lotura gogora ekartzea komeni da:





PEGIP 2020ren ardatza	PEGIP 2020ren helburu estrategikoa	
Integritatea	Integritate politikan sakontzea, ikuspegi integral batetik.	Administrazio irekia
Gardentasuna eta parte-hartzea	Gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetz a sustatzea Administrazio publikoan.	
Plangintza estrategiko adimenduna	EAEko Administrazio Orokorraren eta haren administrazio instituzionalaren esku-hartze publikoen plangintza estrategikoa eta ebaluazioa bultzatzea.	
Herritarrekiko harremanak	Hainbat kanaletatik (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet) eskura daitezkeen kalitatezko zerbitzuen eskaintza garatzea.	Administrazio eraginkorra
Kudeaketa aurreratua	Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektroniko en eskaintza osatzea eta horien erabilgarritasuna eta irisgarritasuna hobetzea.	
	Zerbitzu elektroniko en erabilera eta administrazioen arteko lankidetz a sustatzea administrazio elektronikoaren arloan.	
	Pertson ek enplegu publikoaren antolaketan eta modernizazioan duten zereginaren birdefinizio an aurrera egitea. Horren helburua herritarrei eta interes orokorrei zerbitzua ematea da.	
	Administrazioaren eta haren sektore publikoaren antolamendu egitura herritarren egungo premietara eta eraldaketa digitalaren, lankidetzaren eta berrikuntzaren edo gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara egokitzea.	
	Administrazio elektroniko a, haren antolamendu eta funtzio eredu eta IKTen kudeaketa eredu berria ezartzea eta hedatzea.	
	Kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat ezartzea.	Administrazio efizientea
Berrikuntza	Administrazioan berrikuntza sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak politika eta zerbitzu publikoaren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan sartuz.	Administrazio berritzailea



Planaren Helburu estrategikoen eta Ardatzen arteko lotura deskribatu ondoren, Planaren jarraipena egiteko informazioa *PEGIP 2020*ren ardatzen inguruan egituratuko da.

- 1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea
- 2. ardatza. Plangintza Estrategikoa eta Adimenduna
- 3. ardatza. Herritarrekiko harremanak
- 4. Ardatza. Integritatea
- 5. ardatza. Berrikuntza
- 6. ardatza. Kudeaketa aurreratua

*PEGIP 2020*ren ardatz bakoitzari dagokionez, honako informazio hau erakutsiko dugu:

- Ardatzaren helburuak.
- Mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak ardatzeko proiektuen testuinguruan.
- Ardatzeko proiektuen egungo egoera: organo arduraduna, amaiera data, egoera, balorazioa.
- Ardatzaren adierazleak.
- Proiektuetan egindako inbertsioa. Horri dagokionez, adierazi behar da proiektu batzuek hasieratik ez zutela inbertsiorik behar, eta beste batzuk beste proiektu batzuen sinergiak aprobetxatuz gauzatu direla.



1. ardatza. Gardentasuna eta parte- hartzea



1. ardatzaren helburuak.

- Legebiltzarrekin lankidetzan aritzea Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen Lege-proposamena aurrera eramateko.
- Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren lidergoari eustea nazioarteko gardentasun estandarretan.
- Gobernantzako, gardentasuneko eta herritarren partaidetzako politikak sustatze aldera erabakiak hartzeko ahalmena duen antolaketa egitura izatea.
- Liburu zuriko konpromisoak pixkanaka garatzea, "Zehaztasunetik hasteari" eta hedapen konpromisoei dagokienez.

1. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

1.1. Gardentasunaren Legea

Gobernu onak lege esparru bat behar du, boterea erabiltzeko moduan ordena berri bat ezartzen laguntzeko eta administrazio kultura berri baten zutabeak garatzeko. 19/2013 Legeak; gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak; Autonomia Erkidegoei aplikatzen zaienak, ez du gardentasunaren arloko esparru nahikorik ematen, eta ez du ezer arautzen herritarren parte-hartzearen eta politika eta zerbitzu publikoen efizientziaren arloan.

Esparru horretan, *PEGIP 2020* honen testuinguruan, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak legebiltzar taldeek Lege-proposamen bat aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean 2017ko uztailaren 26an. 2017ko irailaren 19an, Eusko Jaurlaritzak Lege-proposamena aintzat hartzearen aldeko irizpidea adierazi zuen, politika publikoen ebaluazioaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloko arau moderno eta eguneratua izateko gizarte premiarekin lotzen zelako. Zuzenketak aurkezteko epea amaituta, eta ponentziak hainbat bilera egin ondoren, XI. Legegintzaldia amaitzeagatik bertan behera geratu zen, hauteskundearen deialdiaren ondorioz.



XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren helburuetako bat da "Gardentasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Legea onartzea, administrazioaren gardentasuna bermatzeko herritarren aurrean, herritarrek gai publikoetan parte har dezaten sustatzeko, eta Gobernu programa betetzeko garatutako ekintzen eta ekimenen kontuak denbora errealean ematea errazteko" (IV. ardatza, 25. Jarduera eremua, 148. konpromisoa, 1. ekimena). Era berean, Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 10ean onartutako legegintza programak lege-proiektua 2022ko bigarren seihilekoan onartzeko helburua jasotzen du.

1.2. Publizitate aktiboa eta informazioa eskuratzeko eskubidea

Arlo horretan, nabarmentzekoa da GARDENA Gardentasun Ataria berriz diseinatu izana: irudi berria, kontakizunak, grafikoak eta bistaratzeak.

PEGIP 2020ren beste helburu bat Transparencia Internacional España eta beste erakunde ebaluatzaile batzuen gardentasun ebaluazioetan lehen postuak lortzea zen. Helburu hori honako mugarri hauei esker bete dela esan dezakegu:

- Transparencia Internacional Erakundeak ez du kanpo ebaluaziorik egin; beraz, 2016an lortutako nazioarteko gardentasunaren Rankingean lidergoari eusten zaio, bai Autonomia erkidegoetan (INCAU), bai ura kudeatzeko organoetan (INTRAG).
- Lidergoa DYNTRAREN (Dynamic Transparency Index) gardentasun rankingean. Erakundeetan eta Gizarte Zibilerako gobernu irekia neurtzen eta kudeatzen lan egiten duen munduko lehenengo lankidetzeta plataforma da. Autonomia Erkidego gisa hirugarren postua betetzen du, 199 adierazletik 180 argitaratuta, hau da, % 90,45.
- Lidergoa DYNTRAREN gardentasun rankingean COVID 19aren kudeaketan, bigarren postuan, 20 gardentasun adierazle argitaratuta.
- Epe barruan eman da arreta, sarbidea ukatzeko kasu gutxirekin, informazio publikoa eskuratzeko eskaeretan, eta eskaerak pixkanaka handituz joan dira: 2015ean 30 ziren, 2019an 179 eta 2020an ia 300.
- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpenak epe barruan eman dira tokiko erakundeek eta erakunde autonomikoek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea



ukatzearen ondorioz aurkeztutako erreklamazioei dagokienez. 2016an 2 ebazpen eman ziren, 2019an 84 eta 2020an 100 inguru.

- Bilakaeraren datu guztiak biltzen dituen urteko balantzea GARDENAn argitaratuta dago, gardentasunaren kontrolaren atalean. <https://www.gardena.euskadi.eus/informazioa-gardena/-/gardentasunaren-kontrola/>

1.3. Gardentasunaren Sailarteko Batzordea

Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Sailarteko Batzordea, Eusko Jaurlaritzak gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan egiten dituen jarduerak koordinatzeko organoa den aldetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago. Gobernu Kontseiluaren 2017ko uztailaren 11ko Akordioan ezarritakoaren arabera sortu zen, eta 2017ko irailaren 13an eratu zen. Oinarrizko euskarri bihurtu da publizitate aktiboko informazioa mantentzeko beharrezkoak diren lanak koordinatzeko, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak kudeatzeko, bai eta euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen eta erakunde partaidetuen publizitate aktiboko betebeharrak sustatzeko egindako lanerako ere.

Koordinaziorako eta etengabeko harremanetarako bilerak, gardentasunerako eta herritarren parte-hartzerako neurriak homogeneizatzeko.

Urtero adosten da EAEko administrazio orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasunaren ezarpen mailari buruzko balantze txostena, Gobernu Kontseilura eramaten dena eta gardentasunean argitaratzen dena <https://www.gardena.euskadi.eus/informazioa-gardena/-/gardentasunaren-kontrola/>

COVID-19 pandemiaren ondorioz, 2020an ez zen aurrez aurreko bilerarik egin, baina 2019ko balantze txostena posta elektronikoz kontrastatu zen.

2020an ez da bilera presentzialik egin COVID-19k ezarritako segurtasun neurriak betetzeko.



1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak

Gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko estatuko eta nazioarteko organoetan parte hartuz, gure erakundearen maila berean jar daitezkeen jardunbide egokiak partekatzeko eta ezagutza trukatzeko helburua bete da, gardentasunaren arloko gure praxia gero eta modu nabarmenagoan hobetzeko:

- Cadizko 2018ko Adierazpena, gardentasunari buruzkoa, Gardentasuna Bermatzeko Organoak <https://congresotransparencia.com/declaracion-de-cadiz/>
- Malagako 2019ko adierazpena, gardentasuna bermatzeko organoen gardentasunari buruzkoa <https://congresotransparencia.com/actividad/s19-declaracion-malaga/>
- Gardentasuna bermatzeko organoen 2020 adierazpen instituzionala https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/comunicacion/actualidadnoticias/hemeroteca/2020/Segundo-semester/20201002.html#.X_wxxuhKhPY
- Gardentasun Kontseilu autonomikoen eta Estatuko Gardentasun Kontseiluen sarearen urteko bi bileretan parte hartzea.

Erakundeen arteko lankidetzaren erakusgarri nagusia izan da Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzan (OGP) **OGP Euskadiren** hautagaitza 7 erakunderekin osatzea (Eusko Jaurlaritza, 3 Foru Aldundiak eta 3 hiriburuetako Udalak), Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin batera. <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-euskadin/-/euskadiko-ogpren-hautagaitza/>

Euskadiren hautagaitza onartua izan zen. Ondorioz, OGPren sareko kide da eta munduko 15 eskualdeen artean dago. <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-euskadin/-/euskadiko-ogpren-hautagaitza/> Hautagaitzaren ordezkari bat OGP sareak Tbilisin egindako bilerara joan zen.

Konplexutasun handiko elementua da, eta euskal erakundeen eta Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantza osatzen duten eskualdeen sarearen arteko lankidetzeta eta ikaskuntza eskatzen ditu, aurrez ezarritako eta ebaluatutako jarduera protokoloekin. Horrek esan nahi du gauzatu beharreko konpromisoak dituen ekintza plan bat egin behar dela herritarrekin batera.

Horretarako, elkarlanerako antolaketa eredu bat adostu zen, honako talde hauek osatua:



- Talde sustatzailea: Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek, EAEko hiru hiriburuetako udalek eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak (lankidetzak publiko-pribatukoa) osatzen dute.
- Foro erregularra: foro erregularra espazio informal egituratu bat da, euskal administrazio publikoen eta herritar antolatuen eta ez-antolatuen arteko parte-hartzea eta lankidetzak maximizatzeko diseinatuak. Elkarrizketarako eta elkarrekiko sorkuntzarako guneak sortu nahi ditu, ahots aniztasuna bermatuz, Euskadin gobernu irekia bultzatzeko ekintza plan bat diseinatu, inplementatu eta ebaluatzeko. Modu paritarioan eratu zen, baina gaur egun herritarren ordezkariak handiagoak da administrazio instituzionalarena baino.
- Konpromisoaren arabera taldeak: ekintza plana ezartzeko talde eragileak dira. 2018-2020 Planean jasotako konpromisoen arabera erabertzen dira, eta herritarrek parte hartzen dute. Konpromiso talde bakoitzak lider bat eta kolider bat ditu erakunde sustatzaileetan, eta guztiak parte hartzen dute, nolabait, konpromiso taldeko kide gisa. Ezinbestekoa da erakunde sustatzaileek konpromisoak behar bezala gauzatzeko konpromisoa hartzea.
- Foro irekia: parte hartzeko organo bat da, bi norabideko elkarrekin etengabea duena, plataforma teknologiko batean, eztabaidatzeko aurrez aurreko topaketetan eta planaren ezarpena ebaluatzeko topaketetan oinarritua.

OGP Euskadi 2018-2020 Planaren baterako diseinua eta kudeaketa egin da, Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren irizpide eta protokoloen arabera gauzatuak eta ebaluatutako 5 konpromisoren bidez. <https://www.ogp.euskadi.eus/ekintza-plana/-/ogp-ekintza-plana/>

2018-2020 Planean 5 konpromiso sartu ziren, eta OGP Euskadiren erakundearteko webgune bat sortu zen, partaidetzarako eta kontuak emateko plataforma gisa:

1. Agintaldiko planen bidez kontu ematea. Lehendakariak eta Bizkaiko Foru Aldundiak zuzendutakoa <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/kontuak-ematea-agintaldiko-planen-bidez/>



2. Open data eta linked open data Euskadi, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaritzak gidatuta. Talde sustatzaileko 7 erakundeek parte hartu dute: <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-data-euskadi-eta-linked-open-data/>
3. Euskadirako herritarren partaidetzako berrikuntzako Ilab-a, honako hauek buru direla: herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta INNOBASQUE <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/herritarren-partehartzearen-ilab-a-euskadin/>
4. Open Eskola: Gobernantza Publikorako herritartasun-eskola irekia, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak gidatua <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-eskola-herritarrentzat-irekitako-eskola/>
5. Integritatearen Euskal Sistema, Gipuzkoako Foru Aldundia buru dela. <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/integritatearen-euskal-sistema/>

2020. urtearen amaieran, 2021-2024 ekintza-plan berriaren prestaketa parte-hartzailearen lanak hasi ziren. <https://www.ogp.euskadi.eus/hasiera/>

1.5. Liburu Zuriaren konpromisoak

Herritarren parte-hartzeari dagokionez, 2014an onartutako Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren hedapenean aurrera egin da. Liburu horretan printzipioak, kontzeptuak eta konpromisoak adostu ziren arlo publikotik abiatuta eraikitzeko bidean aurrera egiteko.

Arlo horretan, honako hauek nabarmendu behar dira:

- 2017an, Innobasquerekin hitzarmena sinatzea, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria hedatzeko.
- Taldeetan eta elkarlaneko premietan eragina duten Eusko Jaurlaritzako langileentzako elkarlaneko negoziazioari buruzko prestakuntza.



- Elkarlan sariak 2017an, 2018an, 2019an eta 2020an esleitu ziren, jardunbide egokiak transferitzeko garatutako lehen produktuekin <https://www.gardena.euskadi.eus/informazioa-gardena/-/elkarlan-sariak/>
- Elkarlan sarietara bideratutako zenbatekoa bikoiztu egin da; hala, 2020an 4 sari eman dira, 9.000 euroko zuzkidurarekin, eta transferentzia produktuak sortzeko konpromisoa hartu da.
- Taldeetan eta elkarlaneko premietan eragina duten Eusko Jaurlaritzako langileentzako elkarlaneko negoziazioari buruzko prestakuntza.
- Eusko Jaurlaritzako proiektu parte-hartzaileak bultzatzea: elkarlaneko zuzenbidea; 4/2005 Berdintasunerako Legearen ebaluazio partekatua; herritar zientzia- Bid Rex Interreg Europe; Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren plataforma parte-hartzailea; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspena; Bherria.

<https://www.gardena.euskadi.eus/informazioa-gardena/-/gardentasun-herritarren-parte-hartze-eta-gobernu-onerako-tresnak/>

- Herritarren parte-hartzearekin zerikusia duten produktu berriak (OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planeko 3. konpromisoaren esparruan sortuak):
 - Euskadiko herritarren partaidetzarako berrikuntza laborategi baten kontzeptualizazioa eta gobernantza eredua
 - Partaidetzako berrikuntza proiektuak identifikatzeko, esperimatzeko eta transferitzeko oinarriak
 - Herritarren partaidetzan jardunbide egokiak transferitzeko orientabideak
 - Ongizatea eta osasuna sortzen duten parte-hartze prozesuei buruzko gida
 - Aurrekontu parte-hartzaileak eratzea
 - Nola egiten dute? Laborategi, programa eta sareetako beste esperientzia batzuetatik ikasten
 - Errekaldeko etorkinen parte-hartzea areagotzeko partaidetza prozesua
 - Parte-hartze prozesuek administrazioan duten eraginaren ebaluazioa (Getxoko Udalean egindako pilotua) <https://www.ogp.euskadi.eus/tresnak/-/sortutako-tresnak-konpromisoen-arabera/>



- 2 ebaluazio partaidetu egin dira: OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planeko 3. konpromisoaren ebaluazio partaidetua eta OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planaren ebaluazio partaidetua. https://www.ogp.euskadi.eus/ab92-contcomp/eu/contenidos/proyecto/ogp_compromiso_3/eu_def/index.shtml?r011dTabs=r01-progress

1.6. Open Data

Open data Euskadi, datu publikoak ireki eta berrerabilpena sustatzearen helburua da, euskal gizarteari zerbitzu publiko edo pribatu berriak eskaintzen laguntzea. Datuak ustiatzeko ahalmen handia duten sektoreetan (osasuna, hezkuntza, industria, etab.) eta tratamendu grafikoa edo ustiapen espezifikoak dituzten sektoreetan datuak liberatzean jarri dugu arreta, herritarren artean gizarte premia eta arazo premia-koenei buruzko zein politika eta zerbitzu publikoek haien gogobetetzean duten benetako eraginari buruzko iritzia taxutzen laguntzen dutelako.

- ✓ Gasteizko Udalaren datuen federazioa
- ✓ Open Linked Data proiektua garatzea
- ✓ Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien eta Gasteiz, Donostia eta Bilboko udalen datuen Federazioa
- ✓ Open Data Euskadik bere datu multzoak datu irekien beste plataforma batzuetan ere argitaratzen ditu, hala nola Espainiako Gobernuaren datu irekien atarian eta Europar Batasunekoan
- ✓ Open Data kultura sustatzeko saria Elkarlan 2017 Sarien barruan eta Datu irekiak berrerabiltzeko ideien lehiaketa eta datu irekiak erabiliz zerbitzu, azterlan, web aplikazio edo mugikorretarako zerbitzuak garatzeko edo sortzeko lehiaketa 2018 eta 2020 ekitaldietan, 3 Foru Aldundien eta Gasteiz, Donostia eta Bilboko udalen parte-hartzearekin. <https://opendata.euskadi.eus/datu-irekien-lehiaketak/>
- ✓ Open Appsak bultzatzea: katalogoan irekitako aplikazioak kargatzea
- ✓ Open Linked Data azpiegitura ezartzea (SPARQL, etab.)



✓ Proiektuen garapena:

- ELI (Europako Legearen Identifikatzailea); horri esker, euskal araudia identifika daiteke web identifikatzaile bakar eta egonkor baten bidez, pertsonak eta makinek ulertzeko modukoa, automatikoki prozesa daitezkeen metadatuak dituen, eta euskal legeria ELI sistema ezarri den Europar Batasuneko gainerako legeriarekin lotzeko, elkarreragiteko eta berrerabiltzeko aukera ematen duena <https://www.legegunea.euskadi.eus/european-legislation-identifier-eli-legegunean/x59-contgral/eu/>
- Euskalmet: datuak irekitzea eta webgunea birdiseinatzea
<https://www.euskalmet.euskadi.eus/hasiera/>
- Pertsonen, Erakundeen eta Ekipamenduen Direktorioa
- Terminologia hiztegien datuak irekitzea (UZEI)
<https://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/euskalterm-hiztegi-terminologikoak/>
- Gardena berriro diseinatzea, datuak bistaratzeko ataria txertatuz
<https://www.gardena.euskadi.eus/hasiera/>
- OGP Euskadiren 2. konpromisoa: Open data Euskadi eta open linked data. Euskadiko berrerabiltzaileen kolektiboak (unibertsitateetako ikerketa langileak barne) eta herritarrek eskatutako datu multzoak identifikatzea, eta euskal administrazioek datu horiek normalizatzea eta lotzea, bistaratzea eta erakunde arteko zerbitzu berriak garatuz
- Zerbitzuak garatzeko 4 eremu (plan sektorialak) eta ireki eta argitaratu beharreko 27 datu multzo: kultura ekitaldiak, administrazio ekitaldiak, diru laguntzak, trafikoa



	ZERBITZUA	DATASET
1	Mugikortasun jasangarria	Gorabeherak bide publikoan
2	Mugikortasun jasangarria	Trafiko kamarak
3	Mugikortasun jasangarria	Errepideen edukiera
4	Mugikortasun jasangarria	Trafikoaren egoera
5	Mugikortasun jasangarria	Aparkaleku publikoen kokapena
6	Mugikortasun jasangarria	Aparkaleku publikoen okupazioa (denbora errealean)
7	Mugikortasun jasangarria	Bidegorriak eta bizikleta-bideak
8	Mugikortasun jasangarria	Bizikleta publikoen geltokiak
9	Agenda	Kargu instituzionalen agenda
10	Agenda	Administrazio-ekitaldien agenda
11	Agenda	Kultur Agenda
12	Ingurumen-kalitatea	Edukiontzia
13	Ingurumen-kalitatea	Hondakinen bilketa (mota, kopurua, etab.)
14	Ingurumen-kalitatea	Airearen kalitatea
15	Ingurumen-kalitatea	Giza kontsumorako uraren kalitatea
16	Ingurumen-kalitatea	Ur-masen kalitatea
17	Ingurumen-kalitatea	Hots-kutsadurako estazioak eta neurketak
18	Kirola eta bizieta osasungarria	Kirol-instalazioen kokapena
19	Kirola eta bizieta osasungarria	Kirol-instalazioen erabilera
20	Kirola eta bizieta osasungarria	Parke eta lorategien mapak
21	Kirola eta bizieta osasungarria	Parke eta lorategien zerrenda, oinarritzko datuekin
22	Kontuak ematea	Urteko aurrekontuaren proiektua
23	Kontuak ematea	Urteko aurrekontua
24	Kontuak ematea	Aurrekontuaren gauzatzea
25	Kontuak ematea	Hitzarmenak
26	Kontuak ematea	Diru-laguntzak
27	Kirola eta bizieta osasungarria	Mendi-ibiliak

<https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-data-euskadi-eta-linked-open-data/>

<https://opendata.euskadi.eus/apiak/-/open-data-euskadiko-apiak/>



Gotemburgoko Unibertsitateko Gobernu Kalitaterako Institutuak sortutako **gobernu kalitatearen indize europarra** ("EQI" ingelesezko siglen arabera) Europar Batasunean eskualde mailan eskuragarri dagoen kalitate instituzionalaren adierazle bakarra da. Indize horrek hedapen handia du Europar Batasuneko esparru akademiko eta instituzionaletan.

Indize horren arabera, erakundeen kalitatea dimentsio anitzeko kontzeptua da: inpartzialtasun handia eta zerbitzu publikoen kalitatea, ustelkeria maila txikiarekin batera. Europako Batzordeak 2010ean finantzatu zuen, eta berriz ere 2013an eta 2017an. EQIren helburua da herritarrek ustelkeriari buruz dituzten pertzepzioak eta esperientziak atzematea, bai eta zerbitzu publikoak inpartzialtzat eta kalitate onekotzat zer mailatan kalifikatzen dituzten ere, bizi diren eskualdean.

2018ko martxoan, 2017ko konparazio azterlana argitaratu zen. Euskadik Frantziako eskualde gehien oso antzeko emaitzak lortu zituen. Euskadi, gobernuen kalitate instituzionalari dagokionez, Europako bigarren mailako eskualdeen taldean sartetik gertu dago (espazio horretan daude "Austriako eskualdeak" eta "Alemaniako" eskualde asko).

Azterlanaren ondorioetan, Eskualdeetako Lantaldean Bo Rothstein irakasleak garatutakoetan, berariaz aipatzen da Euskadi kasu "interesgarrienetako" bat dela. "Denboran zehar Espainiak batez beste joera negatiboa izan duen arren, eta Espainiako eskualde askotan beherakada negatiboa izan den arren, Nafarroa, Kantabria eta Euskal Autonomia Erkidegoa etengabe hobetu dira denboran zehar", azterlan akademikoaren arabera.



1. ardatzeko proiektuen egungo egoera

Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera-data	Egoera	Balorazioa ²	
1.1. Gardentasunaren Legea	HHZDZ	2017/07/31	Amaituta	Positiboa	
1.2. Publizitate aktiboa eta eskuratzeko eskubidea	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.3. Gardentasunaren Sailarteko Batzordea	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.5. Liburu Zuriaren konpromisoak	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.6. Open Data	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	

(1) Izen laburtua.

(2) Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.



Inbertsioa 1. ardatzean

Proiektuaren izenburua	2017	2018	2019	2020	2017-2020 guztira
1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak	0 €	23.249,55 €	40.925,23 €	59.931,30 €	124.106,08 €
1.5. Liburu Zuriaren konpromisoak	39.913,10 €	37.040,40 €	41.215,28 €	57.054,00 €	175.222,78 €
1.6. Open Data	231.576,07 €	282.580,03 €	301.342,53 €	274.263,15 €	1.089.761,78 €



1. ardatzeko adierazleak

	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
1.1. Gardentasunaren Legea								
Gardentasunaren lege-proposamenaren zirriborroa, Gobernu Kontseiluan adostua eta onartua	Bai	Bai	-		-		-	
Azkenean onartutako legean jasotako elementu arautzaileak, landutako proposamenaren arabera	-		-		-		Bai	Ez
1.2. Publizitate aktiboa eta eskuratzeko eskubidea								
Adierazleen argitalpenaren bilakaeraren urteko balantze positiboa	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Nazioarteko Gardentasuneko uraren organo kudeatzaileen gardentasuna ebaluatzeko rankingeko postua	=1	1	=1	1	=1	1	=1	1
DYNTRA (gardentasun dinamikoaren indizea) gardentasunaren ebaluazioaren rankingeko postua	<=3	3	<=3	7	<=3	3	<=3	3
Gardentasuna ebaluatzeko nazioarteko gardentasuneko Autonomia Erkidegoen INCAU rankingeko postua	=1	1	=1	1	=1	1	=1	1
Gardentasuna COVID 19ren kudeaketan (DYNTRAREN Rankinga)							<=3	2
1.3. Gardentasunaren Sailarteko Batzordea								
Urtean egindako bileren kopurua	2	1	2	2	2	1	2	0
Eratutako Gardentasunaren Sailarteko Batzordea	Bai	Bai	-		-		-	
1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak								
Autonomia Erkidegoen arteko edo nazioarteko foroetara joatea jardunbide egokiak trukatzeko	3	1	3	4	3	2	3	2
Euskadiko OGP 2018-2020 Ekintza Plana gauzatzea							5	5
1.5. Liburu Zuriaren konpromisoak								
Egindako Elkarlan Sarien urteko deialdiak	1	1	1	1	1	1	1	1
Herritarrek parte hartzeko tresna sektorial landua	Bai	-	-	-	-	-	-	Bai



Liburu Zuriaren eduki berrien kopurua	1	0	-	0	1	2	0	7
Ebaluatutako prozesu parte-hartzaileen kopurua	-	0	-	0	2	0	0	2
Egindako proiektu pilotuen kopurua	1	1	3	5	4	7	5	9
Innobasquerekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea	Sinatuta							

1.6. Open Data

Egindako datu irekien lehiaketak		1	1	2	2		2	2
Grafikoen atari berria sortzea Euskadi.eus atarian	-	Ez	-	Ez (aribidean)	-	Bai	Bai	
IVAPen plataformaren bidez emandako online ikastaroak	-	1	1	1	1		1	
Gasteizko eta Donostiako udalen federazioa Open Data Euskadiren katalogoan	-	3	-	1	-	1	Bai	Bai
Open Data Euskadin SPARQL puntu bat ezartzea	-		-	Bai (1)	-		Bai	Bai
Euskadi.eus-eko grafikoen atarian argitaratutako grafikoen kopurua	-	0	5	0	10	50	20	50
Datu irekien plan sektorialen kopurua	1	0	2	0	3	4	4	4
Egindako datu irekien lehiaketak (2)	1	1	3	2	2		3	5

Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Udalak
Gipuzkoako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Donostiako Udala

(1) ELI proiektua: 32.040 baliabide

(2) 2017an saria Elkarlan Sarien modalitate gisa sartu zen open data kulturaren sustapenaren eremuan, eta 2018an eta 2020an Ideien lehiaketa eta Aplikazioen lehiaketa deitu ziren.



2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna



2. ardatzaren helburuak

- Herriaren erronkei modu sistemikoan aurre egitea ahalbidetuko duen Plangintza Estrategiko baten garapenean aurrera egitea, erronka horiei modu eraginkor eta efizientean aurre egiteko beharrezkoak diren aktiboen multzoa integratuz.
- Emaitzetara bideratutako eta urte anitzeko Aurrekontu Estrategikoak izatea, baliabide ekonomikoak plangintza estrategikoarekin eraginkortasunez lerrokatu ahal izateko.
- Sistema korporatibo eta zeharkako bat ezartzea, Euskadiko Administrazio Orokorrean eta haren Administrazio Instituzionalean egiten diren esku-hartze publikoen ebaluazio sistematikoa eta aldizkakoa egiteko.

2. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

Ardatz honetako helburu orokorretako bat Plangintza Estrategiko baten garapenean aurrera egitea da, herrialdearen erronkei modu sistematikoan aurre egitea ahalbidetuko duena, erronka horiei modu eraginkor eta efizientean aurre egiteko beharrezko aktiboen multzoa integratuz, honako hauen bitartez:

1. Antolaketa, egitura eta prozedura izaerako neurriak ezartzea, plangintza estrategiko adimenduna epe luzera mantendu ahal izateko (hau da, ebaluatzen den plangintza estrategikoa), herritarrekin batera eta erakunde barruan eta erakundeen artean lankidetzan.
2. Helburuen araberako kudeaketarako eta emaitzetara eta inpaktuetara bideratutako plangintzarako beharrezko prozedurak eta protokoloak ezartzea.
3. Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoak hobetzea, hala edukia nola izapidetze elektronikoko plataforma komunean oinarritutako izapidetze prozedura, lan-fluxuak eta erantzukizunak definituz.
4. Plangintza estrategikoa aurrekontu eta ekonomia plangintzarekin ainguratzea.



5. Plangintza egitea erraztuko duten ereduak eta tresnak garatzea.

2.1. Plangintza estrategikoa 2020-2025

- Hainbat bilera egin dira proiektuko hiru sail liderren artean (Lehendakaritza, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila eta Ekonomia eta Ogasun Saila).
- Ekonomia eta Ogasun Sailak "2020-2024 XII. Legegintzaldian Gobernuaren plangintza estrategikoa hobetzeko proposamena" izeneko erreferentzia dokumentua landu du.

2.2. Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak

Ardatz honetan, halaber, herritarren beharretan emaitza eta inpaktuak lortzera bideratutako Aurrekontu Estrategikoak ezarri nahi dira; beharrezko aktiboen multzoa eta baliabide ekonomikoak plangintza estrategikoarekin integratu eta bateratuko dituzten urte anitzeko aurrekontuak, eraginkortasunez eta efizientziaz, herriaren erronkei modu sistemikoan heltzeko, honako hauen bidez:

1. Antolaketa, egitura eta prozedurazko neurriak ezartzea, aurrekontu plangintzari epe luzera eusteko, emaitzetara eta inpaktuetara eta helburuen arabeko kudeaketara bideratuta.
2. Aurrekontu eta ekonomia plangintza; plangintza estrategikoarekin lotzea.

Ildo horretan, "Politika Publikoen eta Ekonomia eta Aurrekontu esparruaren Estrategia eta Garapena" izeneko dokumentua landu da.

2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea

Azkenik, planifikazio eta ebaluazio kulturaren zeharkako instituzionalizazio bat behar da, esku-hartze publikoen plangintza eta ebaluazio sistema bat ezartzea eskatzen duena; horregatik, ardatz honek sistema korporatibo eta zeharkako bat ezarri nahi du Euskadiko Administrazio Orokorrean eta haren Administrazio Instituzionalean, elkarlaneko ikuspegiarekin, gardentasunerako, kontuak emateko eta etengabeko hobekuntzarako tresna gisa, ohiko ebaluazio prozedurak eta arau eta metodologia esparru komun baten pean arautuak ezarriz. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren ekintza gizarte-premietara



egokituko da, politika publikoen eraginkortasuna eta herritarrek horiekin duten gogobetetze-maila zehaztuz.

Benetako ebaluazio estrategia korporatibo bat abian jartzeko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, arlo horretako erakunde eta antolaketa ereduari heldzea, prozesuaren buru izango den antolaketa egitura bati, alegia. Behin plana ezarrita, beharrezko lan ildo ugari eta askotarikoak landu ahal izango dira.

Horretarako, 2017an *"Plangintza estrategiko adimendunaren antolaketa ereduaren proposamena Eusko Jaurlaritzan: Nor, zer eta nola"* eta *"EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko Politika Publikoen Plangintza eta Ebaluaziorako Unitatearen sorrera justifikatzeko memoria"* egin ziren. 2019ko ekitaldian, Ogasun eta Ekonomia Sailak beste proposamen bat egin zuen antolamendu eredu horri buruz.



2. ardatzeko proiektuen egungo egoera

Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera-data	Egoera	Balorazioa ²
2.1. Plangintza estrategikoa 2020-2025	HHZDZ	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa
2.2. Emaizetara bideratutako aurrekontu estrategikoak	Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa
2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea	HHZDZ	2020/12/31	Hasi gabe	Hobetzeko modukoa

(1) Izen laburtua.

(2) Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.



2. ardatzeko adierazleak

	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
2.1. Plangintza estrategikoa 2020-2025								
Plangintza estrategikoa ebaluatzeko prozedura berrikusita eta ezarrita	-	-	-	-	-	-	Bai	Ez
Eusko Jaurlaritzaren eta bere Administrazio Instituzionalaren plangintza estrategikorako orientabide orokorrak 2020-2025 aldirako	-	-	-	-	-	-	Bai	Ez
Plangintza estrategikoa, ekonomia eta aurrekontu plangintzarekin ainguratuta	-	-	-	-	-	-	Bai	Ez
2.2. Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak								
Egindako Gobernu ekintzaren Ekonomia eta Aurrekontu esparrua	-	-	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Aurrekontu plangintzaren prozedura, plangintza estrategikoan ainguratuta, berrikusita eta ezarrita	-	-	-	-	-	-	Bai	Ez
Politika publikoen estrategia eta garapenari buruzko dokumentua eginda	-	-	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Urteko aurrekontu proiektuaren memoria, plangintza estrategikoari lotutako partidekin (Gobernu eta Saitetako planak) eta Gobernu Programaren Adierazleen Sistemako adierazleak txertatzearekin	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea								
Politika publikoak ebaluatzeko unitatea sortu da	-	-	Bai	Ez	-	-	-	-
Sortutako eta sexuaren arabera hornitutako Politika Publikoen Ebaluazio Unitateko lanpostuen kopurua	-	-	3	0	-	-	-	-
Ebaluazio sarea eta politika publikoak ebaluatzeko lankidetzaren gunea sortu dira	-	-	Bai	Ez	-	-	-	-
Ebaluazioen ataria sortu da	-	-	-	-	Bai	Ez	-	-
Politika publikoen ebaluazioan zeharkako aldaketa kudeatzeko ekintzen kopurua, sexua bereizita (metatua)	2	0	6	0	10	0	14	0



3. ardatza. Herritarrekiko harremanak



3. ardatzaren helburuak

- Herritarrekiko interakzioaren kalitatea hobetzea interakzio hori gerta daitekeen edozein kanaletan, eta administrazio kargak murriztea.
- Herritarrekiko interakzio zerbitzuen kudeaketa egokitzea 39/2015 APELen ezarpenetik eratorritako administrazio elektronikoaren beharrian berrietara.
- Herritarrekiko elkarrekintza prozesuetan parte hartzen duten eragile guztien koordinazio egokia ziurtatzea, bai maila transbertsalean edo horizontalean, bai sail edo sektore mailan.
- Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateko duten eskubidea gauzatzea.
- Zerbitzu publikoen erabilgarritasuna hobetzea, komunikazio argia erabiliz, herritarrek erraz aurkitu eta ulertu ahal izan dezaten behar duten informazioa, eta gai izan daitezzen izapidetze elektronikoko tresnak modu erraz eta eraginkorrean erabiltzeko.
- Zerbitzuen erabiltzaileei ematen zaien arreta hobetzea, eta, horretarako, herritarrentzat, tramitazio elektronikoa langile publikoek egiteko hasierako puntuak eta informaziorako eta tramitazio elektronikorako sarbide puntu bakarrak prestatzea.
- Elektronikoki izapidetzeko betebeharra duten pertsonetikiko harreman elektronikoa erraztea.
- Zerbitzu elektronikoaren erabilera sustatzeko beste ekintza espezifiko batzuk identifikatzea eta hedatzea, beste erakunde edo organo batzuekin lankidetzan.



3. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

3.1. *Zuzenean* zerbitzuaren garapena

Zuzenean herritarrentzako zerbitzua garatu eta hobetzeari dagokionez, azpimarratu behar da Erregistroak Trukatze Sistema (SIR) jarri dela martxan Eusko Jaurlaritzako sailtako Zerbitzu Zuzendaritza guztietan.

Egunero eguneratzen da aginte koadroa, eta hilero argitaratzen dira jarduera txostenak, edozein kanalen bidez.

Gainera, urtero egiten eta argitaratzen da herritarrek *Zuzenean* Zerbitzuarekin duten gogobetetasunari buruzko inkesta <https://www.euskadi.eus/zuzenean-herritarrei-arreta-emateko-zerbitzuaren-gogobetze-txostenak/web01-a2zuzen/eu/>

Pandemia egoeraren ondorioz, aurretiko hitzorduaren sistema ezarri zen herritarrei aurrez aurre arreta emateko bulegoetan, COVID-19ren aurkako neurriak betetzen direla bermatzeko.

Zuzenean zerbitzuan jasotzen diren kexak, iradokizunak eta esker-emateak kudeatzeko sistema informatizatu da.

3.2. Interneteko presentzia

Interneteko presentziak bilakaera positiboa izan du. Euskadi.eus atarien sarera egiten diren bisiten kopuruak gora egiten jarraitzen du etengabe. Euskadi.eus webgunearen atariak bisitatzeko erabiltzen diren gailuei dagokionez ere, bilakaera ikusten da. Bilakaera hori, neurri handi batean, Euskadi.eus atarien sarean web erabilerraztasunari dagokionez sustatzen ari diren hobekuntzei zor zaie.

<https://www.euskadi.eus/informazioa/web-estatistikak/web01-a2wz/eu/> helbidean estatistikak kontsulta daitezke, alderdi hauei buruzkoak: denbora aldi zehatzak, bisitak, saioak, ikusitako orrialde kopurua, bisitengatiko webguneak, tokiak, nabigatzaileak, gailuak, etab.



PEGIP 2020 indarrean egon den bitartean, hiru web atari bisitatuena Lanbide, Euskalmet eta Osakidetza izan dira.

http://www.euskadi.eus webgunetik https webgunera bitarteko atarien sare osoa migratu da, azpiegituraren euskarri diren komunikazioen eta web zerbitzarien teknologia eguneratzeko. Onurak askotarikoak dira:

- ✓ Segurtasun handiagoa herritarrentzat Eusko Jaurlaritzarekin elkarreragiten duenean.
- ✓ Web presentzia Interneteko estandarretara eguneratzea.
- ✓ Euskadi.eus sareko webguneen kokapena hobetzea.

Eusko Jaurlaritza bere webgunea irisgarri bihurtzeko lanean ari da, [Sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabilerraztasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuaren](#) arabera. Gaur egun, Euskadi.eus Web Erabilerraztasunaren Behatokiaren arabera, bilakaera positiboa izaten ari da, eta partzialki bat dator 1112/2018 Errege Dekretuarekin, honako alderdi hauek izan ezik:

- Badira behar bezain deskribatzaileak edo esanguratsuak ez diren testuak dituzten esteka batzuk.
- Kasu batzuetan, zerrenden habiaraketa okerrak detektatu dira.
- Aplikazio zahar batzuek interakzio elementu ez-irisgarriak dituzte, scripten bidez programatuak, edo ez dituzte inprimaki kontrolak eta dagozkien etiketak markatzen.
- Zenbait orrialdetan, baliozkotze erroreren bat duten erroreen presentzia CSS eta HTML kodeetan.
- Edizioan akats puntualak egon litezke web orriren batean.

3.3. Zerbitzu elektronikoaren eskaintza

Zerbitzu elektronikoaren eskaintzari dagokionez, adierazi behar da 2018an *Zerbitzuak Digitalizatzeko Plana (PDS)* egin zela PEGIP 2020 indarrean egon zen aldirako, eta, ondoren, aipatutako PDSren jarraipena egin da.



2019an eta 2020an, sailek beren sailen digitalizazioa bultzatzea sustatu da, Zerbitzu Elektronikoen Unitateak horretarako behar den euskarria eskainiz, eta, gainera, administrazio elektronikoaren plataformaren etengabeko eguneratzea kudeatuz, erabiltzaileei erantzun egokia eman diezaien.

Horrekin guztiarekin, digitalizazio maila (ezarritako digitalizazio maila lortu duten zerbitzuen eta prozeduren %) honako hau da:

2016/12/31	2017/12/31	2018/12/31	2019/12/31	2020/12/31
% 68,5	% 70,5	% 59,6	% 68,6	% 72,4

2018an izandako beherakadaren arrazoa Zerbitzuen Katalogoan egindako arazketa prozesu bat izan da; izan ere, hori da adierazle horiek lortzeko informazio iturria, eta hortik zerbitzu bikoiztuak edo zaharkituak kendu dira.

Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak gidatutako proiektuen bidez digitalizatutako prozedurak:

2016	2017	2018	2019	2020
48	53	115	143	168

3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea

A. Hizkera Argia eta Irakurketa Erraza

Hizkera argiko prestakuntza eta ekintza programa diseinatzea eta abian jartzea. Hizkera argiko prestakuntza eta ekintza programa IVAP-EAEEko Administrazio Hizkerako Ataleko adituek ematen dute. Langile horiek Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzarekin lankidetzan jarduten dute zerbitzu publikoen erabilgarritasuna hobetzearekin eta administrazio hizkera sinplifikatzearekin lotutako programa eta jarduera guztietan.

Programak hizkera argiari buruzko prestakuntza presentziala eta birtuala, teorikoa eta praktikoa konbinatzen ditu, eta komunikazio argiaren kontzeptuak islatu eta praktikatzeko balio duten benetako administrazio testuak erabiltzen ditu beti. Ikastaroa gainditzeko ebaluazio ariketa parte-hartzaileek



kudeatzen dituzten zerbitzu edo prozedura zehatzen bat hizkera argira egokitzea da. Horrela, bermatuta geratzen da ikasitako ezagutza programaren errealitatera transferitzea.

Taula honetan, Eusko Jaurlaritzaren atalak ageri dira, osatu diren hiru edizioetan proiektuan parte hartu duten programekin batera:

HEZKUNTZA	2018	2019	2020
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza			
Atzerriko ikastaroetarako beka			
Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritza			
Ikastetxeak eta irakaskuntzak			
Araubide bereziko irakaskuntzak			
Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritza			
Lanbide heziketa duala			
Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza			
Unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta -laguntzak			
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza			
Unibertsitate beka			
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza			
Erasmus/Bizialdi osoko ikaskuntzaren finantzaketa			
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	2018	2019	
Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza			
Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak			
EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroa			
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza			
Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzak			
Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzen deialdi agindua			
Telelaguntza zerbitzu publikoa			
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	2018	2019	2020
Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza			
Egoitza elektronikoa informazioa ematea eta izapidetzea			



Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza			
Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroa			
Fundazioen erregistroa			
Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen eta Elkarteen Babeslaritza			
LANBIDE	2018		
Lehen Aukera programa. Gazte langabeak euskal enpresetan kontratatuzko laguntzak			
Enpresa ideia bat garatzeko ekintzaileei laguntzeko laguntzen deialdia			
EKONOMIA ETA OGASUNA		2019	2020
Finantza Politikako Zuzendaritza			
BGAEn erregistroak			
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK (Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza XI. Legegintzaldian)		2019	2020
Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza			
Bizilagun (Fidantza gordailuak)			
Etxebide			
Birgaitze integratua			
KONTSUMOBIDE			2020
Kontsumo gidak			
SEGURTASUNA			2020
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak			

B. Dokumentuen estandarizazioa eta normalizazioa

Beka, laguntza eta diru-laguntzen prozedura arloko dokumentuen txantiloak estandarizatzeko erronkari heltzeko, diziplinarteko lantalde bat eratu zen, inplikaturako ikuspegi desberdinak integratuz: Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria, IVAPeko administrazio hizkeraren arloa, arlo juridikoa, EKB, zerbitzuak digitalizatzeko arduradunak, PLATEA tramitazioko arduradunak EJIEn.

Txantilo estandarizatuak daude honako dokumentu hauetarako:

- ✓ Zuzentzeko errekerimendua
- ✓ Atzera egiteko ebazpena



- ✓ Laguntza emateko ebazpena
- ✓ Laguntza ukatzeko ebazpena
- ✓ Dokumentazioa eskatzea

2019an, kontraste saio espezifiko bat egin zen herritarrekin, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza programan, eredu horiek baliozkotzeko.

Dagoeneko planifikatuta dago prozedura familia honetako gainerako dokumentu txantiloiak estandarizatzea:

- ✓ Emakida aldaketa ukatzeko ebazpena
- ✓ Aldaketa prozedura hasteko ebazpena
- ✓ Dirua itzultzeko prozedura hasteko ebazpena
- ✓ Errebokatzeko prozedura hasteko ebazpena
- ✓ Emakida aldatzeko ebazpena
- ✓ Baliogabetzeko ebazpena

Ondoren, beste prozedura familia batzuen dokumentu txantiloak jorratuko dira, hala nola administrazio egintzak, baimenak, ziurtagiriak, administrazioari egindako jakinarazpenak, kontratazioa, arau xedapen orokorrak, herritarrekiko interakzioak, erregistroak, salaketak eta erreklamazioak, zehapenak, etab.

C. Herritarrentzako inprimakiak. Burututakoak:

- ✓ Eskabide elektronikoko inprimakiaren testuetako, komandoetako eta testuinguru laguntzetako hizkera argira egokituak
- ✓ Jakinarazpen eta komunikazioen abisu sistema hobetzea
- ✓ Inprimakietako datuak Excelera esportatzeko aukera
- ✓ Hainbat hobekuntza, funtzionamenduaren alderdi teknikoekin, erabilgarritasun eta funtzionaltasun handiagoarekin eta inprimakien segurtasunaren hobekuntzarekin lotuta

D. Egoitza elektronikoaren bilakaera. Burututakoak:

- ✓ Nabigazio egitura berria, intuitiboagoa eta zuzenagoa



- ✓ Euskadi.eus atariaren diseinuarekin bat datorren eta atari berean integratuta dagoen itxura
- ✓ Edukiak eta testuak hizkera argira egokitzea
- ✓ Gailu mugikorretara egokitzea

3.5. Herritarren karpeta

Herritarren karpeta dagokionez, "Nire kudeaketak" atalaren diseinu berria egin da, eta "Nire karpeta" izena hartu du. Diseinuaren eta eguneratze teknologikoaren alderdiez gain, nabarmentzekoa da "Nire karpeta" Eusko Jaurlaritzaren ahalordeen erregistro elektronikoan sartu izana eta "Nire profila" sortu izana. Azken horrek administrazioarekin komunikatzeko eta abisatzeko datuen kontrola eskaintzen die erabiltzaileei.

Lortutako mugarri nagusiak:


- ✓ 2018/04/11: beta fasean Nire karpeta argitaratzea
- ✓ 2018/06/11: Nire karpeta behin betiko argitaratzea, probaldiaren ondoren
- ✓ 2018/11/26: Tramitagune-PLATEaren V2018_03 bertsioan hobekuntzak sartzea. Hobekuntza horien artean, nabarmentzekoak dira: "Nire profila", aukera ematen baitie erabiltzaileei Administrazioarekiko harremanetarako datuak kudeatzeko; Ordezkarien Erregistroko ordezkariak Nire karpeta espedienteekin uztartzea; kanal anitzeko jakinarazpena, egoitza elektronikoan jakinarazpen guztiak eskuragarri jarriz, posta bidez bidalitakoak barne, 39/2015 Legearen arabera
- ✓ 2019/12/31: 2019an ezarritako Tramitagune-PLATEaren 5 bertsioetan hobekuntzak sartzea, besteak beste: aurkeztutako dokumentuen bistaratzea hobetzea; atal berri bat gehitzea, enplegatuek enpresaren harremanetarako datuak ikusteko aukera izan dezaten; "ikusi historia" aukera gaitzea, "Nire profilean" egindako azken aldaketak erakusteko; eta ziurtagirien aurkezpena hobetzea
- ✓ 2020/12/31: hobekuntzak sartzea Tramitagune-PLATEAn 2020an ezarritako 3 bertsioetan; horien artean, nabarmentzekoak dira iragazkien hobekuntzak eta espedienteen, jakinarazpenen, ziurtagirien eta ordainketen zerrenden bistak, erabiltzaileari pertsonalizazio eta konfigurazio aukera gehiago emanez



Planaren indarraldian adierazle hauek izan duten bilakaera nabarmendu behar da:


Sinadura digitalaren bilakaera Eusko Jaurlaritzaren plataforman

Urtea	PLATEA Tramitagune	Osasun-karpeta
2019	1.362.185	155.352
2020	5.497.519	1.310.902




Euskadi.eus atarien sarera egindako bisiten bilakaera

Datua	2017	2018	2019	2020
Bisitak orrialdeetara	215.769.286	222.735.037	230.601.101	265.232.677
Bisitak gehitzea		% 3	% 4	% 15
Erabiltzaileak	14.428.711	14.616.415	15.925.223	20.880.084
Erabiltzaile kopurua handitzea		% 1	% 9	% 31



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora egindako bisiten bilakaera


Datua	2017	2018	2019	2020
Bisitak orrialdeetara	3.928.449	4.105.670	7.094.931	14.918.666
Bisitak gehitzea		% 5	% 73	% 110
Erabiltzaileak	627.011	809.947	1.371.094	2.465.887
Erabiltzaile kopurua handitzea		% 29	% 69	% 80






Egoitza elektronikoan Nire Karpeta/Mi carpeta egindako bisiten bilakaera

Datua	2017	2018	2019	2020
Bisitak orrialdeetara	1.206.623	1.370.639	1.484.466	3.437.479
Bisitak gehitzea		% 14	% 8	% 132
Erabiltzaileak	78.083	133.531	210.277	464.929
Erabiltzaile kopurua handitzea		% 71	% 57	% 121



Igorritako jakinarazpen elektronikoak bilakaera

Urtea	Jakinarazpen elektronikoak, guztira
2013	48.442
2014	74.341
2015	126.140
2016	248.607
2017	422.347
2018	593.912
2019	721.424
2020	1.222.186





3. ardatzeko proiektuen egungo egoera

Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera-data	Egoera	Balorazioa ²	
3.1. Zuzenean zerbitzuaren garapena	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
3.2. Interneteko presentzia	HHZDZ	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza	HHZDZ	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa	
3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea	HHZDZ	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
3.5. Herritarren karpeta	HHZDZ	2020/12/22	Aribidean	Positiboa	

(1) Izen laburtua.

(2) Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.

3. ardatzean egindako inbertsioa

Proiektuaren izenburua	2017	2018	2019	2020	Guztira 2017-2020
3.1. Zuzenean zerbitzuaren garapena	50.000,00 €	73.460,36 €	73.460,36 €	89.135,00 €	286.055,72 €
3.2. Interneteko presentzia	149.785,76 €	0 €	0 €	0 €	149.785,76 €
3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza	802.523,86 €	703.570,88 €	700.375,28 €	0 €	2.912.436,66 €
3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea	260.013,34 €	493.035,18 €	366.253,43€	351.822,07 €	1.471.324,02 €
3.5. Herritarren karpeta	199.851,97 €	404.904,77 €	594.287,10 €	483.111,49 €	1.682.155,33 €



3. ardatzeko adierazleak

	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
3.1. Zuzenean zerbitzuaren garapena								
Erabiltzaileek <i>Zuzenean zerbitzuaren</i> arreta telematikoko zerbitzuaren kalitatearekin duten gogobetetze indizea (www.euskadi.eus guneko postontzia)	% 70	Ez dago eskuragarri	% 70	% 64	% 70	% 66	% 70	% 45
<i>Zuzenean zerbitzuaren</i> (Telegramen berehalako mezularitza) arreta telematikoko zerbitzuaren kalitateari buruz erabiltzaileek duten gogobetetasun indizea	% 75	Ez dago eskuragarri	% 75	% 77	% 77	% 71	% 72	% 84
<i>Erabiltzaileen</i> gogobetetasun indizea Zuzenean zerbitzuaren aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta zerbitzuaren kalitateari dagokionez	% 82	Ez dago eskuragarri	% 82	% 87	% 82	% 84	% 80	% 81
Aurrez aurreko arreta jaso aurreko itzarote denboraren erabiltzaileen gogobetetze indizea	% 80	Ez dago eskuragarri	% 80	% 82	% 80	% 84	% 80	% 86
Telefono bidezko arreta jaso aurreko itzarote denboraren erabiltzaileen gogobetetze indizea	% 81	Ez dago eskuragarri	% 81	% 82	% 80	% 71	% 82	% 54
Arreta eman zien pertsonaren argitasunari eta ulertzeko erraztasunari buruz erabiltzaileek duten gogobetetze indizea	% 86	Ez dago eskuragarri	% 86	% 91	-	-	-	-
Gaitutako funtzionarioen erregistroa erabilgarri izatea	-	-	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Erregistroen interkonexio sistema erabilgarri izatea	Bai	Bai						
Erabiltzaileen gogobetetasun indizea, kontsulta ulertzeko eta konpontzeko adeitasunari, prestakuntzari eta erraztasunari dagokienez (aurrez aurreko kanala eta telefono bidezkoa)	-	-	-	-	% 70	% 86	% 81	% 83
3.2. Interneteko presentzia								
Herritarrek Eusko Jaurlaritzaren web atariekin duten gogobetetze maila	% 65	Daturik gabe	% 70	Daturik gabe	% 75		% 80	% 82
Estatuko Administrazio Orokorreko Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak egindako behatokietan lortutako euskadi.eus atarien irisgarritasun maila			9	9,2	9		9,5	% 9,4



	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
Interneteko bilatzaileen motorretatik euskadi.eus-era egindako bisiten urteko hazkundera			% 5	% 0,9	% 5		% 5	% 15
Gailu mugikorretara egokitutako euskadi.eus webguneen ehunekoa	% 65	% 70	% 75	% 75	% 90		% 100	% 90
3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza								
Zerbitzu elektronikoen operatiboen ehunekoa	% 80	% 70,5	% 90	% 59,6	% 95	% 68,6	% 100	% 72,4
Administrazioan sartzean papera ordeztzea dakarten espedienteen %	% 40	% 20	% 60	% 25	% 75	% 35	% 90	% 50
Administrazioan sartzean papera ordezteko prozeduren %	% 10	% 5	% 20	% 8	% 50	% 20	% 80	% 40
3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea								
Hizkera argian idatzitako edo irakurketa errazera egokitutako zerbitzu/programen kopurua (1)	0	0	6	4	8	7	10	Ikus (1)
Herritarrek (pertsona fisikoek) zerbitzu elektronikoeiko duten gogobetetasun indizea	-	-	% 65	(2)	% 65	% 81	% 70	(2)
Herritarrek (pertsona juridikoak) zerbitzu elektronikoeiko duten gogobetetasun indizea	-	-	-	-	% 65	% 77		(2)
Hizkera argiaren (eta irakurketa errazaren) arloko prestakuntza eta ekintza arrakastaz egin duten Eusko Jaurlaritzako pertsonen kopurua	-	-	12	9	9	10	18	10
3.5. Herritarren karpeta								
"Nire kudeaketak" bertsio berria argitaratzea (plangintza)			Egina	Bai				
Industriako atari profesionalarekin integratzea			Egina	Ez			Egina	Bai
Herritarren (pertsona fisikoak eta juridikoak) gogobetetzea zerbitzu elektronikoeekin	-	-	% 65	(2)	% 65	% 79	% 70	(2)
Estatuko Administrazio Orokorraren herritarren karpetaarekin integratzea							Egina	Bai
Integrazio biguna Lanbiderekin ("Nire DSBE") eta Osakidetzarekin (Osasun Karpeta)			Egina	Ez	Egina	Ez	Egina	Ez

(1) Hizkera argiari buruzko prestakuntza ikastaroaren 2020ko edizioan parte hartu zuten programek/zerbitzuek edukiak hizkera argian argitaratzeko aukera izango dute 2021eko ekainera arte. Txosten hau idazten ari garen honetan, ez daukagu adierazle horri buruzko daturik 2020an.



(2) Herritarrei egindako inkesta 2019an egin zen, bai pertsona fisikoei bai pertsona juridikoei edo establezimenduei. Gogobetetasun orokorra % 77koa izan zen pertsona fisikoentzat eta % 81ekoa establezimenduentzat edo pertsona juridikoentzat. Bereizketa garrantzitsua da, izapidetze elektronikoa nahitaezkoa baita pertsona juridikoentzat, baina ez fisikoentzat. Bien batez bestekoa % 79 da, eta balio hori herritarren gogobetetasun indize gisa hartu da (Ikusi 3.5 eta 7.2 proiektuen adierazleak). Hurrengo inkesta, beraz, 2021ean egingo litzateke.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes_satisfaccion_ciudadan/eu_egoitza/adjuntos/ESSE P-E19 INFORME III VD eu.pdf (22. orrialdeko datuak)



4. ardatza. Integritatea



4. ardatzaren helburuak

- "Etika eta jokabide onaren kodea" une bakoitzeko eskakizunen arabera eguneratzea.
- Lan didaktikoak eta dibulgaziokoak garatzea.
- Langileen Erregistro Zerbitzua digitalizatzea.
- Kargu Publikodunen betebeharrak eta eskubideak 156/2016 Dekretuaren arabera betetzea.

4. ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

Eusko Jaurlaritzak X. Legegintzaldian Goi Kargudunen Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen. Edukiei dagokienez duen konfigurazioa eta Etika Publikorako Batzordearen sorrera kontuan hartuta, lehen urratsa da integritate instituzionalerako sistema "integral" bat eraikitzeko, hasiera batean goi Administrazioaren mailan jarri baitzuen arreta.

*PEGIP 2020*ak irmoki egiten du osotasunaren ardatza ikuspegi integral batetik garatzearen alde, euskal erakunde publikoen sinesgarritasuna, Euskadi marka, konfiantza publikoa eta euskal erakundeen irudiaren fidagarritasuna indartu nahi dituen politika baten euskarri gisa.

Eusko Jaurlaritzaren ereduak prebentzioan inbertitzearen aldeko apustua egiten du; izan ere, administrazio zigorrak edo zehapenak aplikatzen direnean, kalte instituzionala saihestezina da jada.

Integritate instituzionalaren politikan sakontzea gobernantza publikoa eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren seriotasun irudia indartzen duen lan ildo da.

4.1. Kode etikoa

*PEGIP 2020*ren testuinguruan, hainbat jardunaldi ziklo egin dira Etika eta Jokabide Kodeari atxikitako pertsonentzat, honako gai hauei buruz: "Etika publikoa Gobernu Irekiaren erronken aurrean" (2017ko



ekainaren 14a), "Integritate instituzionala: kargudun publikoak, zuzendaritzako langileak eta funtzionarioak" (2017ko abenduaren 20a), "Erakunde publikoetako integritate arriskuen ebaluazioa" (2018ko iraila).

2019ko urtarrilaren 25ean, Eusko Legebiltzarrera bidali zen "Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako betebeharren betetze mailari buruzko txostena".

Akordio bat onartu zen, Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak egindako gomendioak aintzat hartu eta horiek praktikan jartzeko neurriak onartuz (2019/02/26).

2020an, Etika Publikorako Batzordea osatzen duten pertsonak eguneratu dira.

4.2. 1/2014 Legeko betebeharren kontrola

1/2014 Legearen betebeharrak kontrolatzeko hainbat neurri hartu dira, antolaketari zein araudiari dagokienez:

- ✓ Langileen Erregistro Zerbitzua sortu da (2016). Dotazioa: zerbitzuburua, teknikari juridikoa, antolaketa teknikaria, administrariak (3), administrari informatikoak (3).
- ✓ "Goi-mailako zuzendaritza exekutiboa" ataria jarri da martxan "enplegatuen ataria" delakoaren barruan, kolektiboarekin harreman digitala izateko; atariak informazio espezifikoa eskaintzen du eta izapideak egitea ahalbidetzen du (2017).
- ✓ Langileen erregistro zerbitzuko langileen kopurua handitzea (2018): informatikako teknikariak (2).
- ✓ Agindua, 2018ko abuztuaren 2koa, Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez alde zuzeneko onarpena ematen baitzaio kargu publikodunen betebeharrari eta eskubideei buruzko dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari.
- ✓ Dekretua, EAEko kargu publikodunen lanpostuen katalogo eguneratua onartzen duena, Jaurlaritzak gardentasun, publizitate aktibo eta herritarrek erantzukizun publikoa dutenen lanpostuei buruzko informazio guztia izateko duten konpromisoa betetz. (2019/03/26).



- ✓ Sei hilean behingo txostenak egitea (2017-2020). 2021eko urtarrilean eman da azken txostena, 2020ko abenduari buruzkoa.



4. ardatzeko proiektuen egungo egoera

Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera data	Egoera	Balorazioa ²	
4.1. Kode etikoa	Funtzio Publikoa	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
4.2. 1/2014 Legean jasotako betebeharren kontrola	Funtzio Publikoa	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	

4. ardatzean egindako inbertsioa

Proiektuaren izenburua	2017	2018	2017-2020 guztira
4.1. Kode etikoa	6.000,00 €	4.000,00 €	10.000,00 €
4.2. 1/2014 Legean jasotako betebeharren kontrola	5.000,00 €	3.000,00 €	8.000,00 €

¹ Izen laburtua.

²Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.



4. ardatzeko adierazleak

	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
4.1. Kode etikoa								
Egindako jardunaldi didaktikoen guztizko kopurua	2	2	2	1	2	1	2	1
Etika eta jokabide onaren kode eguneratua	-	-	-	-	-	-	Bai	Bai
Kargu Publikodunen betebeharrak eta eskubideak betetzea, 156/2016 Dekretuaren arabera): jarraipen txostenak, ez-betetzeak egiaztatu gabe	2	2	2	2	2	2	2	2
4.2. 1/2014 Legean jasotako betebeharren kontrola								
Langileen Erregistro Zerbitzuaren sei hilean behingo txostenak argitaratu dira	2	2	2	2	2	2	2	2
Langileen Erregistro Zerbitzuaren digitalizazio maila	% 95	% 95	% 100	% 95	% 100	% 97	% 100	% 98



5. ardatza. Berrikuntza



5. ardatzaren helburuak

- Zeharkako lankidetzaren guneak sustatzea, sortzea eta mantentzea.
- Langile profesional publikoek *PEGIP 2020ren* berrikuntza proiektuetan parte hartzea.
- Herritarrek zerbitzu publikoak eta berrikuntza publikoko proiektuak kudeatzeko fase batean edo batzuetan parte har dezaten lortzea.
- Proiektuen garapena sustatzea (kasu horietan, laguntza publikoa finantzaketan, sareen sorkuntzan, esperimentaziorako inguruneen sorkuntzan eta abarretan zehatz daiteke), helburua emaitzaren arabera neurtzen diren berrikuntza prozesuetatik inpaktua neurtzen dugun berrikuntza prozesuetara igarotzeko moduari buruzko azterketa kritikoa egitea izanik.
- Basque Social Innovation (BSI) erakundearekin lankidetzan, Euskadirentzat gizarte berrikuntzarako lehentasunezko ekimenak identifika daitezten sustatzea, sareko lantaldeak sortzen lagunduz eta gizarte berrikuntzarako ekimen publiko eta pribatuak sor daitezten sustatuz.
- Erakunde arteko lantaldea, etorkizuneko gizarte ereduari eta administrazio eredu berriei buruzko jardunaldiak antolatzeko ideiak emango dituen, eta euskal eragile sozial eta politikoei sozializatzeko dokumentu batekin amaituko dena.
- Administrazio eredu bat proiektatzea: antolamendua, egitura eta kudeatzeko moduak.

Ardatzeko proiektuetako mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

Ardatz estrategiko honen bidez, herritarrak eta profesional publikoak politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan inplikatu nahi dira, sinetsita sektore publikoak ahalmen berritzaile bat izan behar duela, ahalik eta oinarririk zabalena izango duena gizarte konplexu eta



aldakorraren egungo erronkei aurre egiteko, gizarte horri balioa emateko eta zerbitzua emateko konpromisoa baitu. Berrikuntza irekia bultzatu nahi da, pertsonekin eta pertsonentzako sortuz.

Ardatz honek hiru lan ildo edo proiektu biltzen ditu: berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin, berrikuntza soziala Euskadin eta euskal administrazioaren analisi prospektiboa.

5.1. Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin

Proiektu honetan zeharka lan egin da, beste proiektu batzuek ematen zuten aukera bikoitza aprobetxatuz:

Alde batetik, elkarlaneko espazio profesionalak sendotu eta zabaltzea, ikaskuntza partekaturako, elkarlanerako eta sareko antolamendurako eta berrikuntzarako, antolakuntzako espazio fisikoak eta birtualak sortuz, profesional publikoen arteko komunikazioak erraztu eta eraginkorrago bihurtzeko, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza bultzatzeko funtsezko elementu gisa.

Elkarlaneko espazio profesionalak ikaskuntza partekaturako, elkarlanerako eta sareko antolamendurako eta berrikuntzarako, orain arte *PEGIP 2020ren* testuinguruan sortuak:

2017ko espazioak:

- Dokumentuak Estandarizatzeko eta Normalizatzeko Taldea
- OGP-Gobernu Irekiaren Euskal Eredua
- Hizkera argiko eta irakurketa errazeko pilotua

2018ko espazioak:

- 2. konpromisoa; Open Data Euskadi eta Linked Open Data lantzeko taldea
- 3. Konpromisoa; Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzari buruzko Ilab lantzeko taldea
- Datuak Babesteko Batzordea
- Zerbitzuak eta Prozedurak Digitalizatzeko lankidetzako espazioak*: Toki Administrazioako funtzionarioen lanpostuak betetzeko lehiaketa unitarioa, Ertzaintzako Diziiplina Espedienteak,



Karrera Judizialeko Laguntzak, Kontsumitzaileen Erakundeen Errolda, irabazi asmorik gabeko erakundeen gizarte intereseko adierazpena, Ikastetxe Pribatuak baimentzea, BGAE erregistroa

* Bakoitzarentzat SharePoint espazio bat dagoen arren, zeharkako lankidetzako espazio berrien kopurua adierazle bakartzat hartu da. Guneak plantilla batetik abiatuta sortu dira; zeharkako organoak (Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza, EJI, Artxibo Nagusia ordezkaturik) parte hartzen duten pertsonak berberak dira, baina sailetako parte-hartzaileak eta EJIren laguntza teknikoak aldatzen dira.

2019ko espazioak:

- Hizkera argiari buruzko 2019ko ekintzen prestakuntza
- Aholkularitza Juridikoen Elkarlaneko Taldea
- Zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzeko lankidetzako espazioak*: Justizia Lekualdatze Lehiaketa eta LPZ aldatzea
- ZES (Zerbitzu Elektronikoen Sarea)

2020rako espazioak:

- 2020 Hizkera argiari buruzko Prestakuntza eta Ekintza
- 102 - Herritarren Arreta eta Egutegi Korporatiboa

Bestalde, herritarren ikuspegia zerbitzu publikoetan sartu nahi izan da, zerbitzu publikoen diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan nolabait sartuz, oro har, eta *PEGIP 2020* honetako berrikuntza proiektuetan bereziki. Esparru horretan, herritarrek parte hartzeko bi saio egin dira Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Laguntzen programan, hizkera argiko eta irakurketa errazeko irizpideak aplikatzearen testuinguruan (ikus 3.4 proiektua). Herritarrek parte hartzeko saioak ere egin dira, Euskadik OGPn duen parte-hartzearen testuinguruan (Open Government Partnership; ikus 5.2 proiektua).



5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin

OGP Euskadi 2018-2020 Plana, herritarrekin batera sortua <https://www.ogp.euskadi.eus/ekintza-plana/-/ogp-ekintza-plana/>

Proiektu hori gauzatzeko orduan; erakundearteko hautagaitza bat egin da, Euskadi Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzako kide izateko. Hautagaitza onartu ondoren, herritarrekin batera egin zen *Euskadirako gobernu irekiaren 2018-2020 Plana*. <https://www.ogp.euskadi.eus/ekintza-plana/-/ogp-ekintza-plana/>

Planak 5 gauzatzeko-konpromiso ditu: 1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez, 2. Open data Euskadi eta linked open data, 3. Euskadi parte hartzeko ilab-a, 4. Open Eskola-Herritarrentzako eskola, 5. Integritatearen euskal sistema. Eusko Jaurlaritzaz gain, hiru Foru Aldundiak, hiru hiriburuetakoko udalak eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia inplikaturik daude.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila buru dutenak:

- 2. konpromisoa. Herritarrek eskatutako datu multzoak identifikatzea, modu kosortzailean, helburua izanik herritarren informazio zerbitzuak sortzea. Horretarako oinarria EAEko 3 erakunde mailek emandako datuak izan dira, datu irekiak eta nazioarteko erreferentziekin estandarizatuak. <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-data-euskadi-eta-linked-open-data/>
- 3. konpromisoa. Herritarren parte-hartzean berrikuntzako ilab-aren kontzeptualizazioa eta gobernantza eredua, herritarrekin batera sortuta <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/herritarren-partehartzearen-ilab-a-euskadin/>

Open datari buruzko eduki produktu berriak, herritarren interesetara bideratuak (2. konpromisoa):

- ✓ Datuen eskariari buruzko prospektiba metodologia
- ✓ Dataset normalizatuen gida

Herritarren parte-hartzearekin zerikusia duten produktu berriak (3. konpromisoa):



- ✓ Euskadiko herritarren partaidetzarako berrikuntza laborategi baten kontzeptualizazioa eta gobernantza eredua
- ✓ Partaidetzako berrikuntza proiektuak identifikatzeko, esperimendatzeko eta transferitzeko oinarriak
- ✓ Herritarren partaidetzan jardunbide egokiak transferitzeko orientabideak
- ✓ Ongizatea eta osasuna sortzen duten parte hartze prozesuei buruzko gida
- ✓ Aurrekontu parte-hartzaileak eratzea
- ✓ Nola egiten dute? Laborategi, programa eta sareetako beste esperientzia batzuetatik ikasten
- ✓ Errekaldeko etorkinen parte-hartzea areagotzeko partaidetza prozesua
- ✓ Parte-hartze prozesuek administrazioan duten eraginaren ebaluazioa (Getxoko Udaleko pilotua)

<https://www.ogp.euskadi.eus/tresnak/-/sortutako-tresnak-konpromisoen-arabera/>

2 ebaluazio partaidetu egin dira:

- OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planeko 3. konpromisoaren ebaluazio partaidetua
- OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planaren ebaluazio partaidetua

https://www.ogp.euskadi.eus/ab92-contcomp/eu/contenidos/proyecto/ogp_compromiso_3/eu_def/index.shtml?r01IdTabs=r01-progress

Informazio guztia OGP Euskadiren webgunean dago argitaratuta:

<https://www.ogp.euskadi.eus/hasiera/>

5.3. Euskal Administrazioaren analisi prospektiboa

"Herritarren eskariaren analisisa eta administrazio ereduari buruzko proiektzioa (administrazio ereduari buruzko analisi prospektiboa)" proiektua abiarazi zen, proiektuaren definizio dokumentatu batekin, eta etorkizuneko joeren analisiari buruzko lehen azterlan bat egin zen.



5. ardatzeko proiektuen egungo egoera

Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera-data	Egoera	Balorazioa ²
5.1. Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin	HHZDZ	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa
5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa
5.3. Euskal Administrazioaren analisi prospektiboa	HHZDZ	2020/12/31	Hasi gabe	Hobetzeko modukoa

5. ardatzean egindako inbertsioa

Proiektuaren izenburua	2018	2019	2020	Guztira 2017-2020
5.1. Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin	40.000,00 €	40.000,00 €	26.000,00 €	106.000,00 €
5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin	53.502,57 €	0 €	0 €	53.502,57 €

¹Izen laburtua.

²Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.



5. ardatzeko adierazleak

	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
5.1. Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin								
Zeharkako lankidetzaren espazio operatibo berrien guztizko kopurua	2	3	4	7	6	12	8	14
Zeharkako lankidetzaren taldeetan parte hartzen duten profesionalen kopurua	200	289	250	476	300	593	350	624
Profesionalek lankidetzaren taldeei buruz duten gogobetetze indizea	-	-	% 65	-	-	-	% 70	-
Herritarren parte hartzea txertatu duten proiektuen edo zerbitzuen kopurua	1	0	2	4	3	5	4	7
Herritarrek (pertsone fisikoak eta juridikoak) proiektu eta zerbitzuetan parte hartzeari buruz duten gogobetetasun indize orokorra	-	-	% 70	(1)	% 70	% 90	% 70	-
5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin								
Proiektu esperimentalen kopurua	-	-	1	1	5	4	5	4
5.3. Euskal Administrazioaren analisi prospektiboa								
Eragile anitzeko ikuspegia duen dokumentu adostua	-	-	-	-	-	-	Bai	Ez

(1) 2018an ez zen neurketarik egin. 2019an sartutako balorazioak: genero indarkeriaren biktime diren emakumeentzako laguntza programan herritarrek parte hartzeko bi saio. Balorazioa oso positiboa izan da. Baina bi partaidetza saiotan soilik neurtu da gogobetetasuna, eta, beraz, oso saio gutxitan balioetsi da gogobetetasuna. Hala eta guztiz ere, momentuz eskuragarri dagoen datu bakarra denez (2019ko apirila), urte horretako betetze maila globalaren ehuneko erreferentzia gisa erabiltzen da. Hala ere, ez dira neurketa nahikotzat jotzen PEGIP 2020ren testuinguruan helburua zenbateraino bete den jakiteko.



6. ardatza. Kudeaketa aurreratua



6. ardatzaren helburuak

6. ardatzari makroardatz dei geniezaioke; izan ere, 5 azpi ardatz hartzen ditu, administrazio eraginkorra lortzeko helburu estrategiko komuna lortzen laguntzen dutenak. Hauek dira bost azpiardatzak eta dagozkien helburuak:

Antolamendua egokitzea

- Eusko Legebiltzarrekin elkarlanean aritzea euskal sektore publikoaren Lege-proposamena aurrera eramateko.
- Xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko Lege-proiektu bat onartzea.
- EAEko enpresa sektore publikoaren egitura berrantolatzea.
- Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartzen dituen eginkizunak dituzten kontseiluak eta batzordeak identifikatzea.

Eraldaketa digitala

- Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko antolaketa eredu berrikustea eta eguneratzea.
- Administrazio elektronikoko plataforma komun funtzionala, efizientea eta moldakorra izatea.
- Eusko Jaurlaritzaren administrazio prozeduretan paper euskarriaren ordeztu baliokide elektronikoa jartzea.
- Informazioaren teknologiak kudeatzeko eredu berri bat konfiguratzeko.

Aurrerabide

- Ereduari buruzko prestakuntza ematea antolaketa unitateei.
- Antolaketa unitate bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egitea, kudeaketa aurreratuari dagokionez: indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak.
- 2018ko urtarrilean laguntzaileen sarea martxan egotea.



Administrazioen arteko lankidetza

- Administrazioen arteko lankidetza sustatzea maila guztietan (estatukoa, autonomikoa, forala eta tokikoa), administrazioen arteko izapidetze ekimenak abian jartzeko eta administrazio elektronikoko oinarritzko soluzio teknologikoak aprobetxatzeko.
 - Administrazioen arteko lankidetza hitzarmenak kudeatzea, administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarri eman ahal izateko, administrazioen arteko harremanen printzipioak kontuan hartuta.
- Euskal administrazioen arteko lankidetza eredu bat diseinatzea, sortzea eta kudeatzea.
 - Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektorialean eta lantaldeetan parte hartzea.
 - Erkidegoak administrazio elektronikoan dituen beharrak eta konponbideak Autonomia Erkidegoetako erakundeen arteko foroari helaraztea.
 - EAEko Administrazio Publikoari (autonomikoa, forala eta tokikoa) Autonomia Erkidegoen erakundeen arteko foroan onartutako interpretazioak eta ekimenak helaraztea.
- NISAE abian jartzea eta EAEko administrazio guztietan hedatzea.
- Prozedura elektronikoetan eskatzen diren eta datuak trukatzeko zerbitzuekin ordezkari daitezkeen egiaztagirak berriak identifikatzea.
- Euskal administrazioetan datuak egiaztatzeke eta kontsultatzeko zerbitzuak bultzatzea, herritarrek administrazio publikoen esku dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea errespetatzeko.
- EAEko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak Europako erregelamendura egokitzea.
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak kudeatzeko Plataformaren eboluzioaren hobekuntza eta beste plataforma batzuekin integratzea.



- Herritarrentzako eta administrazioen arteko jakinarazpen sistemak 2015eko 39 eta 40 legeetara egokitzea:
 - Jakinarazpen Puntu kontzentratzaile bakarrak ezartzea.
 - Entrega Masibo Automatizatuak Aurkitzeko zerbitzu zentralizatu bat izatea, jakinarazpen puntu kontzentratzaileetan eskuragarri dauden jakinarazpen eta komunikazioak denbora errealean aurkitu ahal izateko.
 - Hartzaile handiei modu automatizatuan eskaintzea beren bidalketa eta agerraldietarako sarbidea, teknologien bidez, hala nola web zerbitzuen bidez.
- Herritarrentzako eta administrazioen arteko komunikazio sistemak 2015eko 39 eta 40 legeetara egokitzea:
 - EAEko Administrazio Orokorreko erregistro elektronikoa orokorra egokitzea.
 - EAEko administrazio publikoen sarrera eta irteera erregistroen interkonexioa bultzatzea.
 - Zerbitzu elektronikoetara sartzeko behar den segurtasun maila ezartzea.

6. ardatzeko mugarri, produktu eta lorpen garrantzitsuenak

Antolamendua egokitzea

Azpi ardatz honen helburua da PEGIP 2020ren "Administrazio efizientea" helburu estrategikoari erantzuna ematea: "Administrazioaren eta haren sektore publikoaren antolaketa egitura herritarren egungo premietara eta eraldaketa digitalaren, lankidetzaren eta berrikuntzaren eta gobernu onaren ondoriozko lan egiteko modu berrietara egokitzea, eta gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea Administrazio Publikoan".

Inplikaturako proiektuek Administrazioaren egituraren eta antolamenduaren ikuskera berri bati heltzen diote, bai eta herritarrentzako emaitzak lortzera bideratutako kudeaketa eredu eta sistema berrien onarpenari ere.



6.1. Eusko Legebiltzarrekin lankidetzan aritzea, euskal sektore publikoaren lege-proposamena aurrera eramateko

Lege-proposamena 2017ko uztailaren 26an aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean EAJk eta PSOEek. Zuzenketak egiteko epea amaituta, eta ponentziak hainbat bilera egin ondoren, XI. Legegintzaldia amaitu zen Eusko Legebiltzarrak testua onartu gabe.

2020ko abenduaren 29an, Gobernu Kontseiluak, Olatz Garamendi Landak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, Euskal Sektore Publikoari buruzko lege-proiektua onartu zuen. Lege-proiektu horren bidez, Euskadiko sektore publikoaren antolaketa konplexu baten aurrean gaur egun dagoen arau-sakabanatzeari erantzun nahi zaio, hainbat testu juridikorekin.

6.2. Xedapen Orokorrak egiteko prozeduraren legea

Gobernu Kontseiluak, 2019ko urtarrilaren 22an, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Lege-proiektua onartu zuen. Eusko Jaurlaritzak bere legeak eta dekretuak egiteko bete behar dituen fase eta betekizun guztiak definitu, mugatu eta arautzen zituen testu horrek.

XI. legealdia izapidetze parlamentarioa burutu gabe amaitu zen, eta Eusko Jaurlaritzak 2020ko azaroaren 10ean onartutako legegintza-egutegian sartu zuen lege-proiektu hori.

Aurreikuspen hori betez, Gobernu Kontseiluak xedapen orokorrak egiteko prozedura erreformatzeko lege-proiektua onartu zuen 2021eko martxoaren 23an. Testu horrek definitu, mugatu eta arautu egiten ditu Eusko Jaurlaritzak bere legeak eta dekretuak egiteko bete behar dituen fase eta betekizun guztiak, helburu hauekin:

- Desburokratizazioa: erraztu eta arindu egiten ditu arauak egiteko izapideak eta prozedurak, lege eta dekretuen berme juridiko guztiei eta kalitateari eutsiz.
- Berdintasuna: arauak egiteko prozesuan, genero ikuspegia aztertzen duten txosten guztiak aurreratzen eta lehenesten ditu, eta berdintasuna bermatzeko neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu, baita Eusko Jaurlaritzak egiten dituen arau testuetan ere.



- Modernizazioa: arauak egiteko prozeduran sartzen ditu "governantza onaren" betekizun berri eta zorrotzak, hala nola nahitaezkoztat ezartzea plangintza, ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea legeak eta dekretuak egiteko prozedura osoan.

6.3. Euskal sektore publikoa berrantolatzea

Proiektu hori gauzatu ahal izateko; 6.1 proiektuak aurrera egin behar zuen, Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean aritzea euskal sektore publikoaren lege-proposamena behar bezala gauzatzeko; izan ere, lege-proposamen horrek ezartzen zituen gauzatu beharreko berrantolaketarako oinarriak. Lege-proposamenak koherentzia eman nahi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sare publikoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren kontzeptu eremu bikoitzari buruz, bai eta egitura horrek Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten erakunde eremuetako sektore publikoek osatzen duten multzoarekin izan zezakeen loturari buruz ere.

Lege-proposamena ez zen onartu 2020 amaitu baino lehen, eta, beraz, ezin izan da gauzatu.

Hala ere, lehen adierazi den bezala, Gobernu Kontseiluak, 2020ko abenduaren 29an egindako bileran, Euskal Sektore Publikoaren Lege Proiektua onartu zuen, Eusko Legebiltzarrera igorri eta, ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak batzorde eskudunari aurkeztu ziona.

6.4. Kide anitzeko organoen eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren ebaluazioa eta hobekuntza

Bestalde, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 14ko Legearen 83. artikulua sortzen duena, aukera bat da orain arte egon diren antzeko konfigurazioko organo sektorialen konstelazioa berrikusteko, maila anitzeko gobernantza arrazionalizatzeko, sinplifikatzeko eta gardentasun handiagoa emateko, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihestuz.

Oso positibotzat jotzen da kide anitzeko organoak eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua ebaluatzeko eta hobetzeko proiektua gauzatzea. Haren eginkizuna da Euskadiko Administrazio Orokorraren eta haren Administrazio Instituzionalaren mendeko kide anitzeko organoak



arrazionalizatzea eta hobetzea, eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren funtzioak gauzatzea, tresna erabilgarriak, eraginkorrak eta efizienteak izan daitezen politika publikoak modu parte-hartzailean eta gardenean definitzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko.

Helburu eta xede orokorra jarduera plan bat gauzatzea da, kide anitzeko organoentzako zeharkako eta berariazko neurriekin, politika publikoetan partaidetza, kontsulta eta koordinazio funtzioak hobetzeko, bereziki euskal administrazio publikoen maila bat baino gehiago inplikatzeko dituztenak, inplikaturako erakunde eta pertsona guztien baterako gogoeta parte-hartzailetik eta egungo egoeraren indarguneen eta ahulguneen ebaluazio eta diagnostikotik abiatuta.

Jarduera Planak Gobernuaren konpromiso hauei erantzuten die:

- Gobernu-programa: 60. konpromisoa, "Efizentzia eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa sustatzeko", eta 8. ekimena: "Euskadiko Administrazio Orokorreko maila anitzeko erakunde osaera duten kontseiluak eta batzordeak identifikatzea, haien eginkizunak Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain har baditzake".
- Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria: "*Euskadin dauden parte hartzeko prozesu eta bide formalen inguruko azterketa kritikoa*" egiteko konpromisoa. *Nabarmendu da garrantzitsua dela egituretan integratutako kontseilu eta organo parte-hartzaileak/aholku-emaileak berrikustea, Liburu Zuriaren hedapenean nola txertatzen diren ikusteko: zer balio eman diezaioketen horri, edo parte-hartzeari traba egin diezaioketen*".
- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren 2017ko urriaren 31ko Akordioa, "Autonomia Erkidegoko hiru erakunde mailek edo autonomia eta toki mailek parte hartzen duten kide anitzeko organoak arrazionalizatzeko azterlan bat egitea eta Tokiko Politika Publikoen Kontseiluari aurkeztea, aintzat har dezan".
- Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektua, Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari dena, kide anitzeko organo guztiek urtero kudeaketa memoria egitea aurreikusten duena.

Jarduera Plana egiteko prozesuak honako fase hauek izan ditu:

Jaurtiketa fasea:

- ✓ Proiektuaren planteamendu proposamena, irismena eta metodologia.



- ✓ Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Sailarteko Batzordeak, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak eta Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialak proiektua baliozkotzea.
- ✓ Lankidetzarako eta proiektuaren ezagutzaren kudeaketa partekaturako gunea eraikitzea.

Inbentario, analisi eta kontraste fasea:

- ✓ Lehendik dagoen informazioa eta dokumentazioa biltzea: kide anitzeko organoen eta kideen informazio eremuak ezartzeko, arau esparrua aztertu da, bai eta Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria ere. Gainera, hasierako informazioa hainbat zerrendatan eta informazio iturritan irauli da.
- ✓ Sailetakako Egitura eta Funtzioei buruzko Dekretuekin alderatzea.
- ✓ Alderdi juridikoak, estatistikoak, partaidetzakoak, emakumeen eta gizonen berdintasunekoak eta euskarari buruzkoak alderatzea.
- ✓ Lankidetzako Talde Teknikoa (LTT) eratzea sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzak izendatutako pertsonekin. Parte-hartzaile edo bideratzaile rola duten 81 pertsona inplikatu dira guztira, eta horrek proiektuaren irismenaren eta dimentsioen berri ematen du.
- ✓ LTTk informazioa kontrastatu, eguneratu eta baliozkotzea. Lankidetzako Talde Teknikoak kide anitzeko organoei eta organo horietako kideei buruzko abiapuntuko informazioa berrikusi eta kontrastatu du, eta behar den guztian osatu, zuzendu eta aldatu du. Zeregin horrek ahalegin handia suposatu du, denborari dagokionez ez ezik, katean inplikaturako pertsonen kopuruari dagokionez ere.
- ✓ Organoen zerrenda eta horietako bakoitzaren fitxak kontrastatzea, bai eta organoetako kideen zerrenda ere, Foru Aldundiekin eta EUDELekin. EUDELi udal ordezkariak duten kide anitzeko organo guztien zerrendak eta informazio fitxak helarazi zaizkio, baita organo horietako kideenak ere, informazioa kontrastatzeko eta ekarpenak kontuan hartzeko.



Emaizta 324 kide anitzeko organoren eta kide anitzeko organoetako 4.572 kideren inbentarioa da (3.776 titular). EAeko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoak kudeatzeko benetako tresna da.

Ebaluazio eta diagnostiko fasea:

- ✓ Kide anitzeko organo bakoitzaren jarduera fitxa eta ebaluazioa.
- ✓ Kide anitzeko organoen hainbat alderdi sailekin, erakunde autonomoekin eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoekin batera aztertzea eta baloratzea:
 - Juridikoa eta arauemailea
 - Eginkizunak eta izaera
 - Araudia eta funtzionamendua
 - Antolamendu atxikipena
 - Egitura eta osaera
 - Baliabideak eta tresnak
 - Jarduera eta egindako lana
 - Politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan duen eragina
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna
- ✓ Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria hedatzeko prozesuaren balorazioa: zer balio eman diezaioketen liburu horri edo, are gehiago, parte-hartzeari oztoporik ekar diezaioketen; genero ikuspegia txertatzea, eta abar.
- ✓ Zenbait organo Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan sartzearen bideragarritasuna baloratzea.
- ✓ Antolakundearen koherentzia eta arrazionaltasuna ebaluatzea.
- ✓ Indarguneak eta ahuleziak. Erronkak eta desafioak.

Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko kide anitzeko organoen ebaluazioa eta diagnostikoa elkarrekin egin da, haietako bakoitzarekin aurrez aurreko bilera espezifikotan, honako helburu hauekin:



- Kide anitzeko organo bakoitzaren eta organo horietako kideen informazio eta jarduera fitxetako informazioa kontrastatzea
- Diagnostikoa partekatzea
- Neurri espezifikoak adostea kide anitzeko organo zehatzetarako

Sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko kide anitzeko organoetarako berriaz egindako azterketa, ebaluazioa eta diagnostikoa "EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen ebaluazio eta diagnostiko memorieta" dokumentatu da. Memoria espezifiko horietan zehatz-mehatz jasotzen da kide anitzeko organo guztien zerrenda, haien informazio eta jarduera fitxekin batera, bai eta sail, organismo edo erakundeko kide anitzeko organoen jardueraren laburpen taula bat ere.

Erakunde autonomoen edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoen gobernu organoak osatzen ez dituzten kide anitzeko 231 organo aktibo ebaluatu dira.

Jarduketa Plana proposatu eta onartzeko fasea:

Ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta, jarduera planaren proposamena egin da, izaera eta irismen desberdineko neurriekin, eraginkortasun eta efizientzia irizpideen barruan sortu zirenerako tresna erabilgarria izan daitezten.

Jarduketak 3 motatakoak dira (zeharkakoak, irismen espezifikoak eta "kasuz kasu" berriazkoak) eta jarduera eta neurri zehatzen gauzatze materiala XII. Legegintzaldian egingo da.

2020ko uztailaren 7an, Gobernu Kontseiluak EAEko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoetarako jarduera plana onartu zuen; beraz, XII. Legegintzaldian gauzatuko dira jarduera eta neurri zehatzak.

Aldaketaren kudeaketa:

Proiektuaren aldaketaren kudeaketak proiektuari buruzko era guztietako informazioa, komunikazioa, hedapena eta prestakuntza biltzen ditu:



- Proiektua www.euskadi.eus webgunean argitaratzea
- Posta korporatiboa
- Aurrez aurreko komunikazio ekintzak: aurkezpenak Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Sailarteko Batzordeari, Administrazio Publikoen Batzorde sektorialari, LTTri, kide anitzeko organoen idazkaritzari, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluari, sailetako, erakunde autonomoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako zuzendariei, Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiari
- 4 Post *PEGIP 2020ren* blogean
- 3 *Saio* Lankidetzaren gunean datuak erabiltzeko eta ustiatzeko

Eraldaketa digitala

Azpi ardatz estrategiko honen xedea da jauzi kualitatibo bat egitea administrazio elektronikoa ezartzeko eta hedatzeko prozesuan, zeina intentsitate handiz garatu baita azken legegintzaldietan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldarrikatzeak behin betiko babestu du eraldaketa digitalaren prozesu hori, orokorrean ezarri baitu administrazio prozedura elektronikoa, administrazio publikoen arteko harreman elektronikoa, bai eta administrazio publikoen eta pertsona juridikoen eta kanal elektronikoa erabiltzera behartuta dauden beste hirugarren batzuen artekoa ere.

7.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia

Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko antolamendu eta funtzio ereduak berrikustea eta eguneratzea

Administrazio elektronikoaren antolamendu eta funtzio eredia berrikusi ondoren, izaera operatiboko berrantolaketa funtzionala egiteko proposamena egin da. Berrantolaketa hori lankidetzaren espazio baten inguruan antolatzen da, Zerbitzu Elektronikoaren Sarearen inguruan. Sare hori 2019ko ekainean aurkeztu zen eta ordutik martxan dago, honako helburu hauekin:



- Administrazio elektronikoaren hedapenean parte hartu behar duten eragile guztiak identifikatzea, "Aktibatzea" eta konektatzea, bai zerbitzuen eta prozeduren digitalizazioan, bai zerbitzu elektronikoaren kudeaketan.
- Koordinazioa eta lankidetzaren erraztea inplikaturako zeharkako organoen edo organo horizontalen eta eremu horretan bete beharreko rola duten sailtako eragileen artean.
- Administrazio elektronikoaren hedapenean eta kudeaketan parte hartzen duten eragile guztiei laguntza eta babesa ematea, zerbitzu sare bat eta hobekuntza eta berrikuntza gune bat eratuz. Une bakoitzean indarrean dagoen prestakuntza eskaintzaz gain, eskariaren arabera prestakuntza eskatzeko aukera ere jasotzen da.
- Zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzeko prozesuak erraztea, protokolo egituratu baten bidez, eta protokolo hori lankidetzaren espazio espezifikoetan kudeatzea.

Zerbitzu Elektronikoaren Sarearen (ZES) SharePoint espazioa sortuta dago. Besteak beste, ZESek modu ordenatuan aurkezten ditu honako eduki hauek:

- Zerbitzu Elektronikoaren Sarearen (ZES) kide diren pertsonen direktorioa, administrazio elektronikoaren hedapenean betetzen duten zereginaren arabera.
- Berrikuntza Publikoaren Laguntza Unitateak (Zerbitzu Elektronikoaren Unitatea, Interneteko Presentzia Unitatea eta Gardentasunari Laguntzeko Unitatea) eskainitako zerbitzuak, zerbitzuei, horien kudeaketari eta horiek eskatzeko moduari buruzko informazio zehatzarekin.
- Administrazio prozedura erkidearen eta sektore publikoaren araubide juridikoaren lege berrien inplikazioei buruzko informazio orokorra, barne hartuta administrazio lege berriak digitalki betetzeko gida, ohiko galderak, administrazio elektronikoaren terminoen eta kontzeptuen hiztegia ...
- Administrazio elektronikoaren hedatzeko tresnen katalogoa, horien deskribapenarekin, dagozkien gida didaktikoetarako sarbidearekin eta tresnara sartzeko zuzeneko estekekin.
- Administrazio elektronikoari buruzko prestakuntzarako sarbidea, ikastaroetan izena emateko, eskariaren arabera prestakuntza eskatzeko aukerarekin.



- Zerbitzu Elektronikoen Sarearen bloga.
- Dokumentuen liburutegia eta administrazio elektronikoari buruzko erreferentzia.

Administrazio elektronikoa hedatzeko aldaketaren kudeaketa

Aurreko puntuan aipatutako edukiez gain, Tutoretza Zerbitzuak honako ekintza hauek egin ditu:

	2017	2018	2019	2020
Emandako ikastaroak	31	58	62	56
Parte-hartzaileak	281	476	639	746
Pertsonak-Metatua (1)	281	757	1.396	2.142

(1) Prestakuntza ikastaroetan parte hartu duten ikasleen guztizko kopuru metatua. Pertsona berak bi ikastaro egin baditu 2 ikasle bezala zenbatzen da.

Inputa 10.4 proiekturako. Lanpostuen zerrenda (LPZ) eguneratzea, administrazio modernoari egokitzeko

Hurrengo bi lan ildoetan aurrera egin da, 10.4 proiekturako beharrezko inputa emateko oinarri izan direnak. Lanpostuen zerrenda eguneratzea, administrazio modernoari egokitzeko:

- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2103 Legeak administrazio elektronikoaren, gardentasunaren eta gobernu onaren arloan ezartzen dituzten betekizunak eta betebeharrak identifikatzea.
- Inplikaturako eragileek egin behar dituzten funtzioak eta zereginak zehaztea, zerikusia duen araudiaren ondoriozko eskakizunak edo betebeharrak betetzeko edo hedatzeko (egiteko prozesuan dagoen zeregina).



Herritarrek zerbitzu elektronikoekin duten gogobetetze mailari buruzko inkesta

Herritarrek zerbitzu elektronikoekin duten esperientzia hobetzeko asmoz, inkesta bat diseinatu eta planifikatu da, herritarren gogobetetasuna neurtzeko eta hobetu beharreko eremuak identifikatzeko. Inkesta, hasiera batean 2018rako aurreikusia, 2019ko ekainetik aurrera egiten ari da, irismen eta zorrotasun estatistiko handiagoa eman zaiolako. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko estatistika organoak hura diseinatu eta gauzatzeko orduan parte hartu du. (ikus Proiek. 7.1).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek eskaintzen duten administrazio elektronikoarekiko gogobetetasunari buruzko inkesta bikoitza egin da, bata herritarrentzat (pertsone fisikoak) eta bestea espezifikoa enpresa edo establezimendu ekonomikoentzat (pertsone juridikoak). Kontsultatu herritarrek Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoekin duten gogobetetzeari buruzko txostenak: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/berrikuntza-publikoa-administrazioaren-hobekuntza/-/herritarrek-eusko-jaurjaritzaren-zerbitzu-elektronikoekin-duten-gogobetetzeari-buruzko-txostenak/>

- Aztertzen da ea kanal elektronikoek zein neurritan lortu duten kuota lehendik dauden kanal tradizionalekin (aurrez aurrekoa edo telefono bidezkoa) batera egonda; zenbateraino erabiltzen diren, zein sakontasun mailatan eta zein helbururekin.
- Era berean, herritarrek eta enpresek beren interakzio elektronikoan aurkitzen dituzten arazoak identifikatzen dira, eta horiek konpontzeko proposatutako bitartekoak zer neurritan erabiltzen diren, kanala bertan behera uzteko edo konponbide propioak bilatzeko aukeren aurrean.
- Halaber, gogobetetze orokorra eta proposamenaren alderdi espezifikoei dagokiena neurtzen da, erabiltzaileen helburuen arabera. Gogobetetze orokorra % 79koa da (herritarren edo pertsona fisikoen % 77 eta establezimenduen edo pertsona juridikoen % 81).
- Azkenik, emaitzen txostenetan, azken urteetan Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) egindako datu serieak erabiliz lortutako datuak testuinguruan kokatzen dira.



7.2. Administrazio elektronikoen plataforma

2017an, Tramitagune-PLATEA plataformaren 5 bertsio berri ezarri ziren, hobekuntza teknologiko eta funtzional ugari txertatuta. Hobekuntza horien artean, hauek nabarmendu behar dira: itsasontzi-jokoaren bidezko sarbidea, hobekuntza esanguratsuak ahalordeen erregistro elektronikoa, PLATEA plataforma Euskalsarea.eus-era migratzea, laguntzen eta diru-laguntzen zeharkako oinarritzko izapidetze eredu ezartzea, pseudonimo ziurtagiriak onartzea eta Giltza sartzea identifikaziorako eta sinadura elektronikorako tresna gisa.

Era berean, 2017ko azaroan, Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Elektronikoa Estatuko gainerako administrazio publikoen erregistroekin konektatu zen, SIR – Erregistroen interkonexio sistemaren bidez.

2018an, Tramitagune-PLATEA plataformaren 3 bertsio berri ezarri ziren, eta hobekuntza teknologiko eta funtzional ugari sartu ziren; besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: korrespondentzia aplikazioarekin integratzea, paperezko hartu agiriak kentzeko; PADES sinadura formatua aktibatzea espediente kudeatzailearen sinadura euskarrian; ordezkarien erregistroa berriz diseinatzea, EJI Eren Aplikazioak Garatzeko Utilitateen egungo bertsioan oinarrituta. Tramitagune-PLATEA Giltza profesionalarekin integratzea, eta interesdunen eta haien ordezkarien kudeaketa eredu berri bat ezartzea.

2019an, Tramitagune-PLATEA plataformaren 5 bertsio berri ezarri ziren. Horietan, hobekuntza teknologiko eta funtzional ugari sartu ziren, besteak beste: lege ordezkariaren kudeaketa ordezkarien erregistroan, komunikazio kanalen kudeaketa hobetzea jakinarazpen zereginean interesdun bakoitzarentzat, kontsulta profil berri bat sortzea espedienteen informazioa ikusteko aukera ematen duena aldaketak egiteko aukerarik gabe, Tramitaguneko ikuskaritzan prozeduren familiari alta ematea, Tramitagune kudeaketa ekonomikoko sistema berriarekin (EIKA) integratzea.

Era berean, 2019ko uztailean, helburu orokorreko erregistro elektronikoa jarri zen abian. Horren bidez, inprimaki normalizaturik edo izapidetze elektronikorik ez duen EAEko Administrazio Publikoaren zerbitzu bati zuzendutako eskaera bat edo beste dokumentazio bat aurkez daiteke.



2020an, ezarritako Tramitagune-PLATEAren 3 bertsioetan hobekuntzak egin ziren; horien artean, nabarmentzekoak dira iragazkietan egindako hobekuntzak eta Espedienteen, Jakinarazpenen, Ziurtagirien eta Ordainketen zerrendetako bistak, erabiltzaileari pertsonalizazio eta konfigurazio aukera gehiago emanez.

7.3. IKTen konbergentzia Plana

2016an, Eusko Jaurlaritzak "Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan" onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan.

Pilatutako esperientziak agerian utzi zuen informazioaren eta komunikazioen teknologien kudeaketa eredua benetan eraldatu behar zela, benetako plangintza estrategiko komun eta koordinaturik ez egoteak ekarri zituen eraginkortasun ezak gainditzeko. Izan ere, azpiegitura teknologikoen sarea sistema indibidualen eta konpartimentu estankoen agregatu bihurtu zen, elkarrekiko mendekotasun eta elkarrengarritasun txikikoak, askotan elkarren artean bateraezinak.

Informazioaren eta komunikazioen teknologiak kudeatzeko eredu berri bat eratzea lehentasunezko erronka politiko eta juridikoa zen, baina, aldi berean, egungo ereduaren eraginkortasunik ezak gainditzeko aukera emango duten koordinazio mekanismoak egituratzeko eta arautzeko aukera ematen zuen, IKTetako gastuaren efizientzia eta arrazionalizazio irizpideen arabera.

Planak hiru helburu nagusi zituen: aurrezkiak lortzea, zerbitzuak hobeto emateko beharrezko eraldaketa aprobetxatzea eta administrazioaren beraren barruan kontrol estrategikoari eustea.

Martxoaren 13an argitaratu zen EHAA 36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duena.

36/2020 Dekretua onartzea Eusko Jaurlaritzak administrazioa berritzeko eta modernizatzeko duen konpromiso irmo eta etengabearen barruan sartzen da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen bultzatu ditu, herritarrekin eta enpresekin harremanetan jartzeko modu berrietara teknologikoki eta antolakuntzaren aldetik egokitzeko erronka garrantzitsuari erantzuteko, informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorean gertatzen diren aldaketa etengabe eta



azkarrei baldintza egokietan aurre egiteko eta gizartearen eskari eta premiei fidagarritasunez, arintasunez eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

Eraldaketa digitalaren ardatzak lotura zuzena du *PEGIP 2020* honetako beste ardatz batzuetako proiektu hauekin.

- 3. ardatza: herritarrekiko harremanak.
 - Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen eskaintza osatzea.
 - Zerbitzu publiko elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea: egoitza elektronikoa, formulario elektronikoa eta espedienteen kontsulta.
 - Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.

- 6. ardatza: kudeaketa aurreratua: Administrazioen arteko lankidetzak.
 - Administrazioen arteko lankidetzarako antolaketa tresna bat sortzea, zerbitzu elektronikoen elkarreragingarritasuna ziurtatzeko.
 - Elkarreragingarritasuneko nodoa abian jartzea, beste administrazio batzuen datuetarako sarbidea errazteko eta herritarrei datuen ziurtagiriak eskatzea saihesteko.
 - EAEko administrazio publikoen sarrera eta irteera erregistroen interkonexioa bultzatzea.
 - EAEren eremuan identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzea eta erabiltzea sustatzea.

Aurrerabide

Aurrerabide Eusko Jaurlaritzaren marka da "Kudeaketa Aurreratua" identifikatzeko. Bere helburua Administrazioa eraldatzea da, herritarren eskarira eta beharretara egokitu dadin, kudeaketa eraginkorragoa, efizienteagoa eta ekitatiboagoa ahalbidetuz.



Eraldaketa hori lortzeko, Aurrerabide Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredu propio batez hornitu da, eta eredu hori arian-arian ezarri nahi da Eusko Jaurlaritzaren antolaketa unitateetan eta erakunde autonomoetan.

PEGIP 2020ren denbora eremuan, eta 6. ardatzaren barruan: hiru proiektu garatzen dira.

8.1. Aurrerabide Kudeaketa Publiko Aurreratuaren eredua

Lehen proiektuak, ereduaren oinarritzako zatian, prestakuntza/ekintza gauzatzea aurreikusten du jaso ez duten unitateentzat, eta prestakuntza/ekintza osagarria gainerako unitateentzat.

Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako antolamendu unitateentzako kudeaketa aurreratuko prestakuntza ekintzaren garapena X. Legegintzaldian egin zen, 2014 eta 2017 urteen artean, eta plangintzan sartutako ia antolaketa unitate guztiek hartu zuten parte prestakuntza ekintza horretan. Hasierako plangintzatik kanpo geratu ziren antolakuntza unitate jakin batzuk, hala nola kabineteko zuzendaritzak, langilerik ez zutelako, eta Lehendakaritzako zuzendaritza batzuk, beren berezitasunengatik.

XI. Legegintzaldia, antolaketaren ikuspegitik, hedakorra izan zen, eta antolaketa unitate batzuk bikoiztu egin ziren edo sortu berriak izan ziren; beraz, aurrekoan baino antolakuntza unitate gehiago zeuden.

2018. urtean zehar, Egiten Ikasi programaren esparruan, 18 antolaketa unitatetan jardun zen. Unitate horiek, jada prestakuntza/ekintza egin bazuten ere, eraldatu egin ziren legegintzaldi horretan, dela bitan banatu zirelako, dela egitura aldatu zutelako, eta Eginez Gara memoriak eguneratu ziren, hau da, aipatutako antolaketa unitateen kudeaketa arloko dokumentazioaren eta informazioaren laburpena, edukiak errealitate berrira egokitzeko helburuarekin.

2019an, berariaz 12 tailer eta modulu egin ziren, antolaketa unitateek eskatuta. Tailer horien gaiak honako hauek izan ziren: estrategia, 5S Digitala eta Prozesuak, Pertsonak eta Proiektuak.



2020an hasi ziren Egiten Ikasi II-ko moduluak (formatu sinplifikatua) Zerbitzu Zuzendaritzei eta zeharkako zuzendaritza batzuei. Covid pandemiaren ondorioz, Sarrerako modula bakarrik egin ahal izan zen, eta lehenengo geroratuta eta gero etenda geratu ziren gainerako moduluak.

2020an, XII. Legegintzaldia hasita, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua Ezartzeko Gida Praktikoa diseinatu eta argitaratu zen. Gida horrek online formatura bideratutako prestakuntza tresna digitalak ditu.

2020ko martxoan, Covid pandemiaren agerpenak eragin handia izan zuen aurreikusitako ekintzen hasierako plangintzan, eta moduluak eta tailerrak birplanteatu egin ziren, hain presentziala ez den eta tresna telematikoen laguntza handiagoa duen formatu baterantz.

8.2. Aurrerabide ebaluazioak

Bigarren proiektua unitateen kudeaketaren ebaluazioak egitea zen, unitateek aldi jakin baterako finkatze eta hobetze plana landu, eta urteko jarraipena egin zezaten.

2017an, 13 unitateren ebaluazioa eta 2 unitatetan Finkatzeko eta Hobetzeko Planaren jarraipena egin zen.

Esleipenduna izango zen enpresaren ahalordetzean egindako akats baten ondorioz, 2018an ezin izan zitzaion proiektu horri euskarria eman behar zion enpresari esleipena egin. Hala ere, 2018an zehar, 5 unitatetan Finkatzeko eta Hobetzeko Planaren jarraipena egin zen.

2019an, Eginez Gara sinplifikatu berri bat egiten hasi zen, web formatuan, ebaluatuko diren unitateek errazago bete zezaten. 2020an Lanbideren ebaluazioa egin zen formatu berri horrekin.

8.3. Aurrerabide lankide-sarea

Hirugarren proiektuak lankide-sarea garatzen du. Sare hori Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako pertsonak osatzen dute, eta unitateen ebaluazioak egiteko eta kudeaketa aurreratuaren kultura euskal administrazio osora hedatzeko euskarria da. *PEGIP 2020* indarrean egon



den bitartean, Sareko pertsonak hausnarketa estrategikoan eta ebaluazioen jarraipenean parte hartzeko helburua lortu da.

2017an, Aurrerabide Klubeko kideek 13 unitateren ebaluazioan eta 2 unitate sendotze eta hobetze planaren jarraipenean parte hartu zuten. 2018an, 5 unitateren sendotze eta hobetze planean parte hartu zuten.

2019an, 3 bilera egin ziren lehenengo lauhilekoan Aurrerabide Klubeko pertsonekin, Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua ezartzeko estrategiarekin lotutako erronka eta helburu berriak birbideratzeko. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan azaroan egindako Kudeaketa Aurreratuaren 25. Europako Astearen, Aurrerabide Klubeko zenbait kidek parte hartu zuten, kudeaketa aurreratuan izandako esperientziak aurkezteko.

2020. urtean, Aurrerabide Klubeko kideek ereduaren oinarritzko elementuak lehenesteko prozesuan parte hartu zuten; euskadi.eus-en argitaratutako Ezartzeko Gidan erabili dira elementu horiek. Halaber, Aurrerabide Klubeko kideek Kudeaketa Aurreratuaren Europako 26. astearen parte hartu zuten Gida eta kudeaketa esperientziak aurkezteko ekitaldian. Urrian egin zen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan.

Proaktiboki, Aurrerabide Klubak kudeaketa aurreratuarekin lotutako hainbat alderdiri buruzko tailerrak sustatu ditu, Eusko Jaurlaritzako hainbat unitatetan identifikatutako premiei erantzuteko.

Administrazioen arteko lankidetzak

Kudeaketa aurreratuaren ardatzean, administrazioen arteko lankidetzak administrazio elektronikoa bultzatzera bideratu da. Horretarako, administrazioen arteko egiturak ezarri dira, izapidetze elektronikorako oinarritzko soluzioak garatzeko eta partekatzekeko estrategia komunak sustatzeko, eta, horrela, administrazioak, herritarrak eta enpresak elektronikoki elkarreraginean aritzeko eta kalitatezko zerbitzu publikoak emateko.

Honako hauek izan dira jarduera ildoak:




- Administrazioen arteko lankidetzarako antolaketa tresna bat sortzea, zerbitzu elektronikoen elkarreragingarritasuna ziurtatzeko.
- Elkarreragingarritasunerako nodoa abian jartzea, beste administrazio batzuen datuetarako sarbidea errazteko eta herritarrei datuen ziurtagiriak eskatzea saihesteko.
- EA Eren eremuan identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sortzea eta erabiltzea sustatzea.

9.1. Administrazio elektronikoan administrazioen arteko lankidetzara antolatzeko tresna bat sortzea

Lehenengo ildoan, maila guztietako administrazioen arteko lankidetzarako antolaketa eredu bat sortu eta ezartzen lan egin da, Europako erakundeetatik tokiko administrazioetara, soluzioen garapen koherentea eta elkarreragingarritasun estrategien, esparru juridikoen, zerbitzuen eta tresna globalen eta sektorialen aplikazioa bermatu ahal izateko, datuen transmisio sareei eta identifikazio sistemei estaldura emanez.

Horretarako, honako grafiko honetan deskribatutako erakundearteko harreman ereduak garatu eta ezarri da:



Iturria: geuk egina

Administrazioen arteko izapidetze ekimenak abian jartzeko eta administrazio elektronikoko oinarriko irtenbide teknologikoak aprobetxatzeko, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea betetzeko ere, esku hartzen duten administrazio guztien lankidetzara behar da ekimen komunak interpretatu eta garatzeko.

Autonomia Erkidegoek, Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentziaren Koordinatzaileen Batzordearen bitartez, Europako administrazio publikoentzako, enpresentzako eta Europako herritarrentzako Elkarreragingarritasuneko konponbideen Komitean parte hartzen dute (ISA Batzordea, Interoperability solutions for public administrations, businesses and citizens). Euskadiri



egokitu zaio 2020an ISA Batzordearen bileretan parte hartzea, baina pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, jarduera oso txikia izan da.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak **Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektoriala** arautzen du, Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialaren mendekoa, Estatuko Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta toki erakundeen administrazio elektronikoaren arloko lankidetzarako organo tekniko gisa.

Aldi horretan, Batzorde Sektorialak hamahiru lantalde jarri ditu abian, eta horietan administrazioko, EJIeko eta IZENPEko langileek parte hartu dute. Taldeak eta helburuak honako hauek izan dira:

- Nortasun digitalaren eta sinadura elektronikoaren lantaldea: identitatearen eta sinadura elektronikoaren arloko arau aldaketen eta aldaketa teknologikoen jarraipena eta bateratze lana. Arazoak eta erabilgarri dauden konponbideak aztertzea.
- Bitartekaritza eta Zerbitzuen lantaldea. Herritarren karpeta: helburuak
 - Sektore publikoan datuak eta dokumentuak trukatzeko bitartekaritza.
 - Datuak eta e- dokumentuak trukatzeko zerbitzuak lehenestea.
 - Datuak trukatzeko eredu juridiko antolatzaileak, bai elkarreragingarritasunerako nodoen bitartez bitartekaritza dihardutenak, bai zuzenekoak.
 - Sistema bitartekarien segurtasun, gobernu eta kontrol ereduak.
 - Herritarrekiko harreman eredu (Herritarren Karpeta) garatu eta ezartzea jardun arlo guztietan: jardueraren jarraipena, gardentasuna eta datuen eskuragarritasuna eta kontsumoa.
- Elkarreragingarritasunaren inguruko lantaldea: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna erraztuko duten arauak eta tresnak ematea, eta oinarri teknologikoen eredu ezartzea Gobernu Elektronikoaren elkarreragingarritasuna bermatzeko toki, autonomia eta estatu administrazioaren esparruan.
- Telekomunikazio Integratuen lantaldea: telekomunikazioen arloan egin beharreko jardueren plangintza, koordinazioa eta jarraipena egitea, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 43. artikuluan jasotako Espainiako administrazio publikoen komunikazio sarea eta Autonomia



Erkidegoetako sare korporatiboak bultzatzeko, indartzeko, sendotzeko eta iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko.

- Behatoki, Adierazle eta Neurrien lantaldea: jarduerak egitea Administrazio Elektronikoaren Behatokiaren esparruan, hainbat argitalpen eta azterlanen bidez Administrazio Elektronikoaren egoeraren eta aurrerapenaren ikuspegi orokorra ezagutu ahal izateko Espainian, maila guztietan.
- Segurtasun lantaldea: Administrazio publikoen artean Segurtasunaren Eskema Nazionala (SEN) ezartzea erraztuko duten arauak eta tresnak ematea.
- Aplikazioak eta zerbitzuak berrerabiltzeko taldea: sektore publikoan berrerabilera sustatzea maila guztietan.
- Biltegi Komunen lantaldea: biltegien inguruan jarduteko estandar komunak ezartzea, bertan jasotako informazioa eguneratuta egon dadin eta haien artean eta beste informazio sistema batzuekin elkarreragingarria izan dadin.
- Dokumentu, Espediente eta Artxibo Elektronikoaren lantaldea: dokumentu kudeaketa elektronikoaren arloko jarduerak ezartzea, koordinatzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea, Espainiako Administrazio Publikoek Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren eta 2015eko 39. eta 40. legeen esparruan garrantzi berezia duten Dokumentu, Espediente eta Artxibo Elektronikoak barne.
- Gaitutako Funtzionarioen lantaldea eta Ahalordeen Erregistro Elektronikoa: koordinazioa Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin, herritarrei baliabide elektronikoak erabiltzen lagunduko zaiela bermatzeko, gaitutako funtzionarioen bidez, identifikazioari eta sinadura elektronikoari, eskabideak erregistro elektroniko orokorraren bidez aurkezteari eta kopia autentikoak lortzeari dagokienez, eta administrazio guztien ahalordeen erregistro elektronikoak erabat elkarreragingarriak izan daitezen.
- 39/2015 eta 40/2015 legeak ezartzen laguntzeko lantalde funtzionala: lankidetzaren gune bat sortzea, 39 eta 40 legeak ezartzean administrazio publikoek aurre egin behar dieten erronka guztiak planteatzeko. Gainerako lantaldeen irismen teknikoa gainditzeko duten gaiak bideratzea, irtenbide posibleak baloratzea edo horiek beste instantzia batzuetara bideratzea. Legeetan eta Administrazio Elektronikoaren norabidea markatuko duten beste araudi eta plan batzuetan jasotako administrazio elektronikoko neurrien ezarpen homogeneoa bermatuko duten irizpide komunak planteatzea.



- ELI Europako Legeariaren Identifikatzailearen lantaldea: Espainian Legeariaren Europako Identifikatzailea inplementatzea, aldizkari ofizialetan eta administrazioen datu baseetan argitaratutako informazio legegilea identifikatzeko eta deskribatzeko estandar gisa.
- Faktura elektronikoaren lantaldea: Autonomia Erkidegoen eta Estatuko Administrazio Orokorraren artean lankidetzan aritzea administrazio publikoen fakturazioa hobetzeko, sektore publikoan faktura elektronikoa ezartzeari garrantzi berezia emanez.

Batzordean eta taldeetan parte hartzeak bi helburu izan ditu:

- Gure erkidegoan administrazio elektronikoaren arloan beharrak eta hartutako konponbideak gainerako Autonomia Erkidegoei eta Estatuko Administrazio Orokorrari (EAO) helaraztea.
- EAEko Administrazio Publikoari (autonomikoa, forala eta tokikoa) Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektorialean onartutako interpretazioak eta ekimenak helaraztea.

Lantaldeek beren azterlanak eta akordioak helarazi dizkiote Batzorde sektorialari, hala badagokio, onar ditzan.

Hona hemen lortutako mugarrietako batzuk:

- eIDAS nodoa ezartzea, identitate elektronikoak mugaz haraindi aitortzeko.
- Administrazioaren Sinadura eta Zigilu Elektronikoen eta Ziurtagirien Politikaren Elkarreragingarritasuneko Arau Teknikoa aldatzea.
- Erregistroen Interkonexio Sistema (SIR) hedatzea.
- 2015eko 39 eta 40 legeak ezartze aldera hainbat analisi egin dira gai desberdinen inguruan: arau garapenak, datuak eta dokumentuak trukatzeko ereduak, pertsona fisikoen datu pertsonalen eta horien zirkulazio askearen babesari buruzko Europako araudia.
- Sektore Publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzko 2016/2102 (EB) Zuzentarauaren transposizioa.
- Espainian Europako Legeariaren Identifikatzailea ezartzeko Zehaztapen Teknikoa onartzea.

Euskadin, eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren esparruan, **Administrazio Publikoen Batzorde Sektoriala** sortu zen 2017ko urriaren 31n, euskal administrazioen eraldaketa digitalarekin lotutako proiektuak koordinatzeko.



Administrazioen arteko lankidetzak Plan Estrategiko honen denbora eremua gainditzen duenez, batzordeen eta haien lantaldeen funtzionamenduak lanean jarraituko du plana amaitu ondoren ere, eta une bakoitzeko eskakizunen arabera eboluzionatuko du.

Hauek dira Herri Administrazioen Batzorde Sektorialeko kideak: Eusko Jaurlaritza, hiru Foru Aldundiak, EUDEL eta hiru hiriburuak.

Batzordea, eremu operatiboan, erakunde arteko lantalde hauen bidez egituratzen da, helburu hauekin:

- Nortasun eta sinadura elektronikoko lantaldea
- Herritarren karpeta eta jakinarazpen elektronikoaren lantaldea
- Administrazioen arteko elkarreragingarritasun lantaldea
- Toki Administrazioen Zerbitzuen Katalogoko lantaldea

Gainera, Estatuko Administrazio Orokorren Administrazio Elektronikoaren Batzorde Sektorialean jorratutako guztiaren berri ematen zaio Batzorde honi, indarrean dagoen araudia betetzeko guztien jarduerak koordinatze aldera.

Lantalde horietatik, 2019. urtearen amaieran "Administrazioen arteko elkarreragingarritasuna" lantaldea eratu da, helburu hauekin:

- Sektore publikoan datuak eta dokumentuak trukatzeko bitartekaritza.
- Datuak eta e- dokumentuak trukatzeko zerbitzuak lehenestea.
- Datuak trukatzeko eredu juridiko antolatzaileak, bai elkarreragingarritasunerako nodoen bitartez bitartekaritzan dihardutenak, bai zuzenekoak.
- Sistema bitartekarien segurtasun, gobernu eta kontrol ereduak.


Hona hemen lortutako mugarrietako batzuk:

- Datuen bitartekotza baimentzeko jarraibideak onartzea.
- Foru Ogasunen zerbitzuen bitartekotza ereduak onartzea.



Pandemiaren egoerak baldintzatu du gainerako lantaldeak eratzea.

Bestalde, administrazio elektronikoan administrazioen arteko lankidetzaren agertoki juridikoa landu eta garatu da, honako diagrama honetan ikus daitekeen moduan:



Iturria: geuk egina

Jarraian, indarrean dauden lankidetzak hitzarmenak eta protokoloak zehazten dira:

- **Estatuko Administrazio Orokorrarekin:** Estatuko Administrazio Orokorraren (Administrazio Digitaleko Idazkaritza Nagusia) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzak hitzarmena, administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri ematekoa, 2017ko martxoaren 27an sinatua. 4 urteko iraupena du, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, bien adostasunez.



Deskribapena: Estatuko Administrazio Orokorraren eta EA Eren arteko hitzarmenak administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko:

- Identifikazio, sinadura eta ordezkari sistema
- Administrazioen arteko datu bitartekaritza
- Erregistroen interkonexio sistema
- Informazio trukeak Autonomia Erkidegoen Atariaren bidez
- Helbide elektronikoko gaitua eta jakinarazpen elektronikoen zerbitzuen prozeduren katalogoa
- SARA sarea

Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari atxikitzeko protokoloa: Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeak.

- **Foru Aldundiekin:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta XXXko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko.

Deskribapena: Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko EAEko Administrazio Orokorraren eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmenaren eredua:

- Foru Aldundia eta haren sektore publikoa Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmenari atxikitzea – Administrazio Elektronikoen Zerbitzuen Katalogoko irtenbide teknologikoak (eskaten direnak markatuko dira)
- Euskal Administrazio Publikoen komunikazio sarea
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak kudeatzeko zerbitzuak
- Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarrengarritasunerako nodoa (NISAE)
- Ordainketa pasabidea



Honako hauek hartzen ditu barnean:

- Toki Erakundeak Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako hitzarmenari atxikitzeke protokoloa
- Lurralde horretako Toki Erakundeak Administrazio elektronikoaren zerbitzuen katalogoko soluzio teknologikoak erabiltzeke hitzarmenari atxikitzeke protokoloa

Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko hitzarmena eta Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmena 2018ko abenduaren 24ko EHAAn argitaratu ziren. Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmena 2020ko urriaren 29ko EHAAn argitaratu zen. Hiru hitzarmenek 4 urteko iraupena izango dute, EHAAn argitaratzen direnetik hasita, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da.

9.2. Elkarreragingarritasunerako nodoa abian jartzea eta elkarreragingarritasun zerbitzuak sustatzea

Beste administrazio batzuen datuetarako sarbidea errazteko eta herritarrei datu ziurtagiriak eskatzea saihesteko, euskal administrazioek elkarreragingarritasunerako nodo eredu bat onartu zuten 2016an.

Eredu horretatik abiatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun nodoa garatu eta abian jarri da (NISAE), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako herritarrek administrazio publikoen esku dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea errespetatzeko.

NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzako plataforma komuna da, eta nodo autonomiko gisa eratuta dago, beraien artean eta gainerako administrazioekin (Estatuko Administrazio Orokorra eta beste Autonomia Erkidego batzuetako administrazioak) datu elektronikoak trukatzeko, sinergiak bateratzeko eta EAEko administrazio guztiei Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala betetzea errazteko.

Bitartekaritza plataforma administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta XXXko Foru Aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmenaren II. eranskineko Administrazio Elektronikoko Zerbitzuen Katalogoan deskribatutako oinarrizko irtenbideetako bat da.



NISAEren atarian argitaratzen dira eskura dauden datuen bitartekotza zerbitzuak. Bitartekotza bidezko zerbitzuen kopuruaren hazkundera esponentziala da.

Bitartekaritza zerbitzuak, urteko			
2017	2018	2019	2020
25	28	52	72

Iturria: www.nisae.izenpe.eus

2020an, honako hauek dira erakunde lagatzaile bakoitzeko bitarteko zerbitzuak:

Erakunde lagatzailearen bitartekaritza zerbitzuak			
PID (*)	Eusko Jaurlaritza	Foru aldundiak	Toki erakundeak
37	15	17	3

(*) PID – Datuen Bitartekaritzarako Plataforma, plataformak bitartekari gisa ematen dituen datuak biltzen ditu. Erakunde lagatzaileak, Estatuko Administrazio Orokorra, Estatuko beste erakunde batzuk edo beste Autonomia Erkidego batzuk dira. **Iturria:** www.nisae.izenpe.eus

Estatuko Administrazio Orokorrarekin bitartekaritza egin duten Euskadiko zerbitzuen kopurua modu esponentzian handitu da 2019ra arte, urte horretan egonkortu baita.

Hurrengo grafikoan, bai bitarteko zerbitzuen kopuruaren bilakaera, bai 2017-2020 aldirian Estatuko Administrazio Orokorrarekin egindako transmisio kopuruaren bilakaera erakusten da, baita ziurtagiriak datu transmisioarekin ordezkatzeko eragindako aurrezpenaren zenbatespena ere.

Hona hemen Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioiko datuen Bitartekaritza Plataformarekin Euskadin egin diren bitartekari zerbitzuen eta datu trukeen bilakaera:



ENTIDAD	SERVICIO INTERMEDIADO	2017	2018	2019	2020
AEAT	Estar al corriente de obligaciones tributarias para contratación con la	526	544	796	1.036
	Estar al corriente de obligaciones tributarias para solicitud de subven	356	5.217	1.302	1.404
Catastro	Consulta de datos catastrales	432.572	520.717	487.445	417.604
DGP	Consulta de datos de identidad	1.706.006	1.609.358	1.446.109	1.397.982
	Verificación de datos de identidad	59.258	62.357	60.846	106.855
DGT	Consulta de datos de un vehículo			65.412	77.785
	Consulta del listado de vehículos de un conductor			135.149	165.644
Educación	Consulta de títulos no universitarios por documentación	42.017	103.577	369.867	1.111.394
	Consulta de títulos universitarios por datos de filiación				17
	Consulta de títulos universitarios por documentación	44.813	48.971	257.605	988.202
IMSERSO	Consulta del nivel y grado de dependencia		127.980	90.142	90.547
INE	Consulta de datos de residencia con fecha de última variación padro	513.905	560.341	809.413	522.876
INSS	Consulta de las prestaciones del Registro de Prestaciones Sociales Pú	699.644	1.684.897	780.172	979.805
Justicia	Consulta de defunción				4
	Consulta de inexistencia de antecedentes penales por datos de filiación			3	
	Consulta de inexistencia de antecedentes penales por documentación			2.063	2.278
	Consulta de inexistencia de delitos sexuales por datos de filiación	4.036	3.226	1.807	619
	Consulta de inexistencia de delitos sexuales por documentación		2	36.159	294
	Consulta de matrimonio			7.600	22.374
	Consulta de nacimiento	1	1		
MINHAP	Consulta de datos de residencia legal	604	539	662	53.560
SEPE	Consulta de estar inscrito como demandante de empleo a fecha actual				1
	Consulta de la situación actual de desempleo	437.345	1.595.621	727.443	826.532
	Consulta de los importes de las prestaciones percibidas a fecha actua	406.817	1.594.436	726.886	837.917
	Consulta de los importes de las prestaciones percibidas en un period	2.184	1.847	2.395	8.450
TGSS	Consulta de los doce últimos meses de la vida laboral			91.517	125.039
	Estar al corriente de pago con la Seguridad Social	41.975	43.273	74.970	287.706
	Situación laboral en una fecha concreta	34.051	33.821	36.601	67.350
Nº DE SERVICIOS DE INTERMEDIACIÓN		17	19	24	26
Nº DE INTERCAMBIOS DE DATOS		4.426.110	7.996.725	6.212.364	8.093.275
AHORRO ESTIMADO		22.130.550,00 €	39.983.625,00 €	31.061.820,00 €	40.466.375,00 €

Iturria: DataOBSAE – Elkarreragingarritasun Arloa, Administrazio Elektronikoaren Behatokiarena

9.3. EAEn identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema komunak sor eta erabil daitezzen sustatzea

2016ko uztailean eIDAS Erregelamendua (electronic IDentification, Authentication and trust Services/identitate elektronikokoak ezagutzeko Europako sistema) indarrean jarri zenean, identifikaziorako eta sinadurarako oinarritzko araudia aldatu zen, batez ere honako hauetan:

- Estatu kideen konfiantzazko zerrendetan dauden Europako ziurtagiri guztiak baliozkotzeko betebeharra.
- Ziurtagirien tipologiak ordeztzea:
 - Sinadura ziurtagiria: pertsona fisikoen identifikaziora eta sinadurara bideratua (sinatzaileak).
 - Zigilu ziurtagiria: pertsona juridikoen zigiluari begira (zigilu sortzaileak).



- Web autentifikazioaren ziurtagiria: webgunea (Interneteko domeinua) ziurtagiriaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoarekin lotzera bideratua.

Erregelamendu bakarra eta estandarizaturia da, Europar Batasuneko estatu kide guztietan aplikatzen da, eta esparru juridiko koherentea eskaintzen du identitateak eta sinadura elektronikokoak onartzeko. Gainera, eIDAS nodoa sortzen da, eta horren bidez, herrialde kideetako herritarrek beste herrialdeetako zerbitzu elektronikoei jo dezakete, beren nortasun digitala aitortuz. Erregelamendu horrek ziurtagiriaren tipologia, identitate federazioen plataformak eta haien interkonexioa aldatu ditu.


Horregatik, EAeko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak egokitu behar izan dira, bai identifikaziorako, autentifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak kudeatzeko plataformaren bilakaera hobetzeko eta beste plataforma batzuekin integratzeko, bai ziurtagiriaren elektronikoko sistema komuna ezartzeko eta garatzeko, hurrengo irudian ikus daitezkeen bezala.

Hala, irisgarritasun handiko gailu mota guztietan erabilgarritasuna konbinatzen duten identifikazio eta sinadura bitartekoak ezarri eta hedatu dira, bai eta harreman elektronikoei beharrezkoak diren segurtasun mailak ere, prozedura eta/edo zerbitzu bakoitzaren eskakizunen arabera, eta modu estandarrean egiten diren sinadurak behar bezala zaintzeko eta baliozkotzeko aukera ere bai.

Gainera, Euskal administrazio guztien artean ezarri, hedatu eta partekatu da ZAIN sinadura zerbitzuen plataforma gisa, Giltza identitateen federazioaren plataforma gisa autentifikazio eta sinadurarako, IDAZKI sinadurarako tresna gisa, eta abar.



IDENTIFIKAZIO, AUTENTIFIKAZIO ETA IZENPE SINADURAKO ZERBITZUAK



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta XXXko Foru Aldundiaren arteko lankidetz hitzarmenaren eranskina, administrazio elektronikoko oinarriko irtenbideak elkarri emateko

Identifikatzeko, autentifikatzeko eta sinatzeko sistemak EAEko Administrazio Orokorraren eta Foru Aldundi bakoitzaren arteko lankidetz hitzarmenean bildutako Administrazio Elektronikoko Zerbitzuen Katalogoaren parte dira.

Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak kudeatzeko plataformari dagokionez, Euskadiko administrazio guztiek erabiltzen dituzten ZAIN eta Giltza plataformak nabarmendu behar dira.

ZAIN konfiantzazko zerbitzuen plataformak segurtasun zerbitzu global eta estandarizatuen multzo bat biltzen du web zerbitzu gisa, autentifikaziorako, baimenerako, sinadura elektronikorako eta datuen babeserako. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

- Administrazio publikoek erabiltzen dituzten web zerbitzuetan oinarritua.



- Herritarrek hainbat baliozkotze ziurtagiri eta agintaritza mota erabil ditzakete Administrazio Publikoekin duten harreman telematikoan; izan ere, MultiAC (ziurtapen agintaritza ugari), MultiPolitika, MultiZiurtagiri, MultiSinadura, MultiFormatu balidazio-plataforma bat da.
- Segurtasuna ematen die sinadura elektronikoei, Denbora Zigilatzearen eta sinadurak bititza luzeko formatuetara eguneratzearen bitartez.
- Europako Ziurtapen Zerbitzuen emaileek emandako ziurtagiri aitortuak baliozkotzeko aukera ematen du, sinadura elektronikoaren arloan indarrean dagoen Europako legeria betez.
- Sinadura elektronikoaren administrazio elektronikoko atarietan integratzea errazten du, Idazki Bezeroaren, osagai MultiSistema eragilearen eta MultiNabigatzailearen bidez.
- Ziurtagirien biltegi zentralizatu gisa jarduten du, aplikazioek urrunetik erabili ahal izan ditzaten, berezko biltegi lokalak mantendu behar izan gabe. Hurbilketa horrek gakoaren erabilera modu ikuskatuan hobeto kontrolatzen du, eta PKIren (Public Key Infrastructure) hedapena, mantentzea eta erabilera sinplifikatzen ditu. Horrela, administrazio publikoek dokumentuak errazago zigilatu ahal izango dituzte.
- Segurtasun eta sendotasun berme handienak ematen ditu, funtzionamenduan errendimendu optimoa, erabilgarritasun handia, elkarreragingarritasuna eta eramangarritasuna bermatuz.

Giltza identitateak federatzeko plataforma bat da, administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu elektroniko zehatzen identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren konplexutasuna isolatzea ahalbidetzen duena. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

- Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoak erraztu eta bateratzen du.
- Nortasun hornitzaile eta agente bitartekari gisa jarduten du, hirugarrenen identitate hornitzaileen arteko federazioa ahalbidetzen du, eta euskarria eskaintzen du haiek mailen arabera sailkatzeko, eIDAS erregelamenduaren arabera.
- Aplikazioen arteko autentifikazio bakarra eta onartutako arrisku mailaren arabera errefortzua errazten ditu.
- Autentifikazio moldagarriko politikak ezartzeko aukera ematen du.
- Nortasun hornitzaile gisa, sistemak aukera ematen du identitateei lotutako gako publikoko atributuak (PKI) modu autoritatiboan kudeatzeko, eta, horrela, sinadura hornitzaile gisa jarduteko.



Bestalde, ziurtapen elektronikoko sistema komuna ezarri eta garatzeak aukera eman du:

- ✓ EAEko identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak erregelamendu berrira egokitzeko.
- ✓ eIDAS gakoaren sistema integratua hedatzeko:
 - Bak, pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko gisa, autentifikatzeko eta ziurtagiri ez-kualifikatuarekin sinatzeko.
 - BaKQ, pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko gisa, autentifikatzeko eta ziurtagiri aurreratuarekin sinatzeko.
 - Giltza Profesionala, enplegatu publikoak identifikatzeko bitarteko gisa, ziurtagiri aurreratuarekin autentifikatzeko eta sinatzeko.
 - Izenordea duen enplegatu publikoaren ziurtagiria: ziurtagirian izenorde gisa erakundearen barneko lanbide identifikazioaren zenbakia sartzeko.
 - IZENPE Mobile aplikazio mugikor bat da, gailu mugikorra identifikazio elektronikoko segururako bitarteko gisa erabiltzeko aukera ematen duena.
- ✓ Administrazioetako sarbide puntu bakarretan eIDAS gako sistemen erregistro bulegoak ezartzea.

Azken urtean, **ziurtagiri profesionala hodeian edo Giltza profesionala** hedatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztietan. Sistema horri esker, enplegatu publikoentzat ziurtagiri aurreratu bat gaitu daiteke hodeian zentralizatutako biltegi baten bidez. Ziurtagiriak erregistro agintaritzaren gisa jarduten duten operadoreen bidez abiarazten dira, bi modalitateen bidez: txarteleko ziurtagiria edo identifikazio presentzial bat. Operadoreak prestatu dira sailetako zerbitzu zuzendaritzetan eta ordezkartzetan.

Era berean, Giltza profesionala hedatu da hainbat erakunde autonomotan (IVAP, HABE, Kontsumobide, Osalan, Emakunde). Kasu honetan, azpiegitura landu da, identifikazio fiskaleko kode propioa duten ziurtagiriak eman ahal izateko. Era berean, operadoreak prestatu dira erakunde horietan.



Pertsonak

Azpi ardatz honen bidez, pertsonak erakundean duten zeregina birdefinitu nahi da. Lehenik eta behin, arau oinarri bat sortu nahi da enplegu publikoa modernizatu ahal izateko, hura antolatuz, araubide juridikoa definituz eta kudeaketa tresna aurreratuak garatuz eta ezarriz; enplegu publiko horren helburua herritarrei eta interes orokorrei zerbitzua ematea da. Bestalde, pertsonen ezagutza eta "egiten jakitea" kudeatzeko diseinatutako plangintza tresnak hedatu behar dira, gizartearen beharretara eta eskaeretara egokituz, hornidurako eta sarbideko aldagaiak, antolamendu aldagaiak, langile publikoen prestakuntza eta aintzatespena eraginkortasunez kudeatuz, eta estrategia politikoa eta administrazio jarduna lerrokatzen saiatuz. Azkenik, gure erakundeetako pertsona guztien potentzialaren maximizazioa lortzeko lan egin behar da, gizonen eta emakumeen tratua eta aukera berdintasuna errealitate bihurtuz.

Helburu horiekin, arau eta antolaketa neurri batzuk hartu dira, eta dagozkien proiektuen arabera multzokatu dira:

10.1. Euskal Enplegu Publikoaren Legea

- ✓ Agindua, 2017ko maiatzaren 17koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
- ✓ Agindua, 2017ko urriaren 16koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektuari alde aurreko onarpena ematen diona.
- ✓ Lehen aldiz parekatzen da, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektuaren bidez, bikotekidearentzako gurasotasun baimenen iraupena (2018/02/16).
- ✓ Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan onartu zuten Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua (2018/09/25).
- ✓ Gobernu Kontseiluak Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektua onartu eta Eusko Legebiltzarrerara bidaliko zuen, tramita zezan (2019/01/29). Izapidetzea ez zen burutu Legegintzaldia amaitu baino lehen.



- ✓ Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 10ean onartutako XII. Legegintzaldiko legegintza programak 2021eko lehen hiruhilekoan Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektua onartzea aurreikusten du.

10.2. EAEOren enplegu plana

- ✓ Agindua, 2017ko maiatzaren 22koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C berariazko osagarria duten eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak.
- ✓ Ebazpena, 2017ko urriaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Jaurlaritzako sailetan, erakunde autonomoetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian eta Osakidetzan zerbitzuak ematen dituzten pertsonen, eta irakasleen prestakuntza finantzatzeko laguntzak esleitzen dituenak. (1.488.097 €).
- ✓ Gobernu Kontseiluaren Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2017ko lan eskaintza publikoa onartzen duena eta *2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan* sartzen duena Ertzaintzako oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko eta Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko plaza kopurua. 2017an 4.580 plaza eskaini ziren guztira (2017/12/05).
- ✓ Agindua, 2018ko apirilaren 23koa, Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira C1 eta C2 azpitaldeetako eta E taldeko lanpostuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordetakoak), betetzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak.
- ✓ Langileei harrera egiteko (harrera plana) eta agur esateko (mentoring plana) prozedurak diseinatu eta abian jartzea, "Langileen aintzatespena" jarduera esparruan (2018ko ekaina).



- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren negoziazio mahai orokorraren Akordioa sinatzen da, zeinaren bidez onartzen baita EAEko langile lan-kontratudun finkoentzako erretiro partzialeko Plana; 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte (2018/11/08).
- ✓ Abian jarri da "herritarren eskariaren analisia eta administrazio ereduari buruzko proiektzioa (administrazio ereduari buruzko analisi prospektiboa)" proiektua. Zehazki, eta aurreikusitako esku-hartze eta jardueren esparruan, hasierako lehen abordatze kualitatiboa garatu da (Etorkizuneko joeren analisia).
- ✓ Akordioa, Gobernu Kontseiluarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen 2018rako enplegu publikoaren eskaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren bigarren eskaintza onartzen dituen eta *2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan* sartzen duena Ertzaintzako oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko plaza kopurua, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen deialdi publikoaren xede izango den plaza kopurua ere. 2018an 4.402 plaza eskaini ziren guztira (2018/12/18).
- ✓ Gobernu Kontseiluak onartutako Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektuaren testuak berariazko xedapenak ditu enplegua finkatzeko lan eskaintza publikoak egin ahal izateko (2019/01/29).
- ✓ Gobernu Kontseiluak onartutako Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektuaren testuak berariazko xedapenak ditu langile publikoen "karrera horizontala" izeneko ahalbidetzeko (2019/01/29).
- ✓ Gobernu Kontseiluak onartutako Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektuaren testuak berariazko xedapenak ditu langile publikoen jardun profesionala ebaluatu ahal izateko (2019/01/29).
- ✓ Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen, dibertsitate funtzional intelektuala duten pertsonentzako enplegu publikoa sortzeko programa eragile bat jarriko zuela abian (2019/02/22).



- ✓ Eusko Jaurlaritzak 2019ko lan eskaintza publikoa onartu zuen, 6.592 lanpostu Hezkuntzan, Osakidetzan, Ertzaintzan eta Administrazio Orokorrean (Gobernu Kontseilua 2019/12/17).
- ✓ Eusko Jaurlaritzak Euskal Administrazioaren 2020rako Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzko akordioa onartu zuen (Gobernu Kontseilua, 2020/12/22).

10.3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana

- ✓ *Administrazio Orokorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako* lehen Planaren esparruan, eta zehazkiago, diseinatutako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra eratu zen. Era berean, haren funtzionamendu araubidea edo barne funtzionamendurako erregelamendua egin zen (2017ko martxoa).
- ✓ Berdintasun teknikari lanpostu berri bat sortu eta hornitu zen, "*Administrazio Orokorreko I. Berdintasun Plana*" proiektua garatzeko (2018ko apirila).
- ✓ Prestakuntza Plana (2018-2019) ezarri zen Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra osatzen zuten pertsonentzat.
- ✓ "Berdintasunezko kultura" ikastaroa ematen zitzaie Administrazio Orokorreko langile guztiei, hiru lurraldeetan (2018).
- ✓ Komunikazio eta dibulgazio ekintza jakin batzuk abiarazi ziren: *Jakinan* ikusgai jartzea, plana liburu formatuan argitaratzea eta laburpen exekutiboa (2018-2019).
- ✓ Berdintasuna postontzia sortu zen, administrazioko langileak sartu ahal izateko (2018).
- ✓ Sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko sentsibilizazio jardunaldia, EAEko Administrazio Orokorreko langileentzat (2018ko Abendua).
- ✓ Batzorde iraunkorrean aurkeztu zen "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren Jarraipen eta Ebaluazio Txostena" (2019ko otsaila).
- ✓ Sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetarako prebentzio eta jarduketako protokoloa egiteko lantaldea sortu zen (2019ko martxoa).



- ✓ Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen eremuan sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetan jarduteko prozedura arautzen duen Aginduaren izapidea hasi da.

10.4. LPZ baloratzea

- ✓ Agindua, 2017ko uztailaren 10ekoa, Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeko legea aldatzeko Lege-proiektua egiteko prozedurari.
- ✓ Autonomia Erkidegoko Administrazio Saitetako eta Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko Dekretu-proiektuak: 2018an, LPZn 588 lanpostu aldatu ziren guztira, gobernuko 21 dekreturen bidez.
- ✓ Lanpostu berriak sortzea: 11 lanpostu berri sortu dira guztira.
- ✓ Administrazio Orokorreko mahai sektorialaren akordioa, EAEko Administrazio lan-kontratuko langileen kolektiboaren analisi funtzionalen ondoriozko antolaketa prozesua amaitu ondoren lan-kontratudun langileen eta funtzionarioen lanpostuen zerrenda aldatzeak dakartzan ondorio ekonomikoak ordaintzeari buruzkoa: 436 dotazio aldatzea; horietatik 368 EAEko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen LPZri dagozkio, 22 funtzionarioen LPZri, 46 Itsasmendikoitik datoz, eta garbitzailearen dotazio bat sortzen da. (2019/04/2)
- ✓ Abian jarri da "Herritarren eskariaren analisisa eta administrazio ereduari buruzko proiektzioa (Administrazio ereduari buruzko analisi prospektiboa)" proiektua. Zehazki, eta aurreikusitako esku-hartze eta jardueren esparruan, hasierako lehen abordatze kualitatiboa garatu da (Etorkizuneko joeren analisisa).
- ✓ Proiektuaren azken dokumentuak egin dira: "Herritarren eskariaren analisisa eta administrazio ereduari buruzko proiektzioa (Administrazio ereduari buruzko analisi prospektiboa)"



6. ardatzeko proiektuen egungo egoera

Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera data	Egoera	Balorazioa ²	
Antolamendua egokitzea					
6.1. Euskal sektore publikoaren lege-proposamena	Araubide Juridikoaren Sailburuordetza	2018/12/31	Amaituta	Positiboa	
6.2. Xedapen Orokorrak egiteko prozeduraren legea	Araubide Juridikoaren Sailburuordetza	2020/01/01	Amaituta	Positiboa	
6.3. Euskal sektore publikoa berrantolatzea	Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza	2020/12/31	Hasi gabe	Hobetzeko modukoa	
6.4. Kide anitzeko organoen eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren ebaluazioa eta hobekuntza	Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
Eraldaketa digitala					
7.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Hala-holakoa	
7.2. Administrazio elektronikoaren plataforma	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
7.3. IKTen konbergentzia Plana	IKTZ	31/12/2020	Aribidean	Positiboa	

¹Izen laburtua.

²Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.



Proiektuaren izenburua ¹	Organo arduraduna	Amaiera data	Egoera	Balorazioa ²	
Aurrerabide					
8.1. Aurrerabideren eredua	Funtzio Publikoko Sailburuordetza	2020/12/18	Amaituta	Positiboa	
8.2. Aurrerabide ebaluazioak	Funtzio Publikoko Sailburuordetza	2020/12/18	Amaituta	Hala-holakoa	
8.3. Aurrerabide lankide-sarea	Funtzio Publikoko Sailburuordetza	2020/12/18	Amaituta	Positiboa	
Administrazioen arteko lankidetzak					
9.1. Administrazioen arteko lankidetzak	HHZDZ	2020/12/22	Amaituta	Positiboa	
9.2. Elkarreragingarritasunerako nodoak	HHZDZ	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
9.3. Identifikazioa eta sinadura	HHZDZ	2020/12/22	Amaituta	Positiboa	
Pertsonak					
10.1. Euskal Enplegu Publikoaren Legea	Funtzio Publikoaren Zuzendaritza	2020/01/01	Amaituta	Positiboa	
10.2. EAEAOren enplegu plana	Funtzio Publikoaren Zuzendaritza	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
10.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana	Funtzio Publikoko Sailburuordetza	2020/01/01	Aribidean	Positiboa	
10.4. LPZ baloratzea	Funtzio Publikoaren Zuzendaritza	2019/12/01	Aribidean	Positiboa	

¹Izen laburtua.

²Balorazio orokorra proiektuaren gauzatzearen balorazio bat da, semaforo berde, hori edo urdin batekin irudikatzen duguna.



6. ardatzean egindako inbertsioa. Kudeaketa aurreratua

Proiektuaren izenburua	2017	2018	2019	2020	2017-2020 guztira
7.2. Administrazio elektronikoaren plataforma	4.512.674,82 €	4.832.695,87 €	5.237.434,65 €	5.373.517,40 €	19.956.322,74 €
7.3. IKTen konbergentzia Plana	15.529.908,00 €	8.191.268,00 €	0 €	0 €	23.721.176,00 €
8.1. Aurrerabideren eredua	1.350,00 €	5.000,00 €	75.027,00 €	75.035,00 €	156.412,00 €
8.2. Aurrerabide ebaluazioak	18.258,00 €	20.000,00 €	5.395,00 €	16.079,00 €	59.732,00 €
8.3. Aurrerabide lankide-sarea	10.325,00 €	0 €	26.798,00 €	16.079,00 €	53.202,00 €
9.2. Elkarreragingarritasunerako nodoa	0 €	215.665,50 €	224.290,50 €	324.290,50 €	764.246,50 €
9.3. Identifikazioa eta sinadura	762.554,32 €	506.499,35 €	656.564,15 €	682.318,80 €	2.607.936,62 €
10.2. EAEAOren enplegu plana	0 € (1)	0 € (1)	0 € (1)	18.029,00 €	18.029,00 €
10.3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana	43.000,00 €	19.782,62 €	13.226,30€	4.840,00 €	80.848,920 €

(1) Ez da hautaketa prozesurik egin EAEAO



6. ardatzeko adierazleak

	2017		2018		2019		2020	
	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua	Helb.	Datua
ANTOLAMENDUA EGOKITZEA								
6.1. Euskal sektore publikoaren lege-proposamena								
Euskal sektore publikoaren lege-proiektuaren zirriborroa, Gobernu Kontseiluan adostua eta onartua	-	-	-	-	-	-	Bai	Bai
6.2. Xedapen Orokorrek egiteko prozeduraren legea								
Xedapen Orokorrek egiteko prozeduraren lege-proiektuaren zirriborroa, Gobernu Kontseiluan adostua eta onartua	-	-	-	-	-	-	Bai	Bai
6.3. Euskal sektore publikoa berrantolatzea								
Euskal sektore publikoaren murrizketa ehunekoa	-	-	-	-	-	-	-	-
6.4. Kide anitzeko organoen eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren ebaluazioa eta hobekuntza								
Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak bere gain hartu dituen eginkizunak dituzten kontseilu eta batzordeen ehunekoa	-	-	-	-	-	-	% 30	% 0
Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren lankidetzaren gunea sortua	-	-	-	Bai	-	Bai	Bai	Bai
Arrazionalizatzeko eta hobetzeko jardueraren plana onartua	-	-	-	-	Bai	-	Bai	Bai
Kide anitzeko organoak kudeatzeko tresna eraikia eta operatiboa	-	-	Bai	Bai	-	-	-	-
Kide anitzeko organoen inbentarioa eginda	-	-	Bai	Bai	-	-	-	-
Kide anitzeko organoen ebaluazioa eta diagnostikoa eginda	-	-	Bai	Bai	-	-	-	-
Gauzatutako zeharkako neurrien ehunekoa					% 10	% 0	% 100	% 10
Gauzatutako irismen-neurri espezifikoaren ehunekoa					% 10	% 0	% 100	% 20



Gauzatutako neurri espezifikoaren ehunekoa, kasuz kasu					% 10	% 0	% 100	% 0
Iraungitako kide anitzeko organo ez-aktiboaren ehunekoa					-	-	% 100	% 0
ERALDAKETA DIGITALA								
7.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia								
Herritarrek zerbitzu elektronikoaren izapideekiko duten gogobetetasun indizea	-	-	% 65	(1)	% 65	% 79	% 70	(1)
Barneko izapidegileek izapidetze elektronikorako plataforma komunarekiko duten gogobetetasun indizea	-	-	% 65	% 60	-	-	% 70	% 75
Barneko erabiltzaileek izapidetze elektronikorako arreta zerbitzuekin duten gogobetetasun indizea (Tutoretza Zerbitzua)	-	-	% 70	% 80	-	-	% 75	% 90
Zerbitzu Elektronikoaren Sarea lankidetzaren gunea, sortua eta operatiboa	-	-	Bai	Sortua				
Zerbitzu Elektronikoaren Sarea lankidetzaren gunean parte hartzen duten pertsonen kopurua						284	250	270
Tutoretza Zerbitzuak emandako aurreko prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	120	281	240	757	360	1.396	480	2.142
Tutoretza Zerbitzuaren prestakuntza ikastaroei buruzko gogobetetasun indizea	% 70	% 78	% 72	% 82	% 73	% 81	% 75	% 81
7.2. Administrazio elektronikoaren plataforma								
Zerbitzu Elektronikoaren Plataforma Bateratuaren barneko erabiltzaileen gogobetetasun indizea	-		% 65	% 60	-	-	% 70	% 68
Zerbitzu Elektronikoaren Plataforma Bateratuaren sistemen erabilgarritasuna % 99tik gorakoa	>% 99	99,43	>% 99	99,68	>% 99	% 99,6	>% 99	% 99,88
7.3. IKTen konbergentzia Plana								
Lanpostuaren kudeaketan bat egiten duten Euskal Sektore Publikoko erakundeak (%)	-	-	-	-	-	-	% 80	
IKT Zerbitzu Korporatiboaren Kudeaketan bildutako Euskal Sektore Publikoko erakundeak (%)	-	% 50	-	% 50	-	-	% 80	
AURRERABIDE								
8.1. Aurrerabideren eredia								
Egiten Ikasi egin duten antolaketa unitateen ehunekoa	% 77	% 77	% 83	% 83	% 90	% 90	% 100	% 92
Parte-hartzaileen gogobetetzea Egiten Ikasi (EI) prestakuntza-ekintzari dagokionez	≥7	7,7	≥7	8,5	≥7	7,8	≥7	-
8.2. Aurrerabide ebaluazioak								
Ebaluatutako antolaketa unitateen ehunekoa	% 15	% 27	% 30	% 27	% 60	% 27	% 100	% 28



Sendotzeko eta Hobetzeko Plana egin duten antolaketa unitateen ehunekoa	% 15	% 22	% 30	% 22	% 60	% 22	% 100	% 22
Sendotze eta Hobekuntza Plan Ebaluatua duten antolaketa unitateen ehunekoa	% 5	% 2	% 15	% 5	% 35	% 5	% 50	% 5
8.3. Aurrerabide lankide-sarea								
Aurrerabideko ekintzetan parte hartzen duten Sareko pertsonen ehunekoa	% 5	% 13	% 15	% 16	% 35	% 60	% 50	% 50
ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA								
9.1. Administrazioen arteko lankidetzak								
Estatuko Administrazio Orokorrarekin administrazio elektronikoa dagokionez hitzarmena sinatuta edukitzea	Bai	Bai						
Foru Aldundiekin administrazio elektronikoa dagokionez sinatutako lankidetzak hitzarmenen kopurua	-	-	3	2	3	0	3	3
Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Foru administrazioekin egindako hitzarmenetara atxikitze protokoloak sinatu dituzten Toki Erakundearen ehunekoa	% 30	% 30	% 50	% 54	% 75	-	% 100	% 92
Administrazioen arteko lankidetzak tresna erabilgarri izatea	-	-	Bai	Bai				
9.2. Elkarreragingarritasunerako nodoa								
NISAE operatibo izatea	-	-	Bai	Bai				
Datu transmisioaren kopuruaren urteko hazkundea	15	50	30	45	30	29	30	23
Elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoan sartutako elkarreragingarritasun zerbitzu berrien kopurua	5	3	10	3	10	24	10	20
9.3. Identifikazioa eta sinadura								
eIDAS gakoaren sistemen erregistro bulegoak erabilgarri izatea sarrera bakarretan	4	4	6	4	8	8	10	10
Emandako ziurtagirien kopurua urtero handitzea	10	10	10	10	10		10	10
Giltz@ operatibo eta beste plataforma batzuekin integratua egotea	-	-	-	-	-	-	Bai	Bai
ZAIN plataforman egindako jardueren kopurua handitzea	5	5	5	5	5	5	5	5



Pertsonak									
10.1. Euskal Enplegu Publikoaren Legea									
Gobernu Kontseiluak Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektua onartzea	-	-	Bai	Ez	Bai	Bai	-	-	
10.2. EAEAOren enplegu plana									
EAEAOren Enplegu Plana onartzea	-	% 30	-	% 50	% 70	% 90	Bai	% 75	
10.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana									
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana gauzatu da	% 20	% 20	% 40	% 40%	% 60		% 80	% 55	
10.4. LPZ baloratzea									
LPZn aldatutako profilen eta lanpostu moten kopurua	200	-	200	-	200	588	200	588	




***PEGIP 2020ko* proiektuen gauzatze egoeraren eta balorazioaren laburpen orokorra**



Izenburua	Amaiera data	Egoera	Balorazioa	
1. ardatza. Gardentasuna eta parte-hartzea				
1.1. Gardentasunaren Lege-proposamena	2017/07/31	Amaituta	Positiboa	
1.2. Publizitate aktiboa eta eskuratzeko eskubidea	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.3. Gardentasunaren Sailarteko Batzordea	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.4. Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.5. Liburu Zuriaren konpromisoak	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
1.6. Open Data	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
2. ardatza. Plangintza estrategiko adimenduna				
2.1. Plangintza estrategikoa 2020-2025	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa	
2.2. Emaitzetara bideratutako aurrekontu estrategikoak	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa	
2.3. Esku-hartze Publikoak Ebaluatzeko Sistema ezartzea	2020/12/31	Hasi gabe	Hobetzeko modukoa	
3. ardatza. Herritarrekiko harremanak				
3.1. Zuzenean garapena	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
3.2. Interneteko presentzia	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
3.3. Zerbitzu elektronikoen eskaintza	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa	
3.4. Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
3.5. Herritarren karpeta	2020/12/22	Aribidean	Positiboa	
4. ardatza. Integritatea				
4.1. Kode etikoa	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
4.2. 1/2014 Legean jasotako betebeharren kontrola	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
5. ardatza. Berrikuntza				
5.1. Berrikuntza herritarrekin eta profesionalekin	2020/12/31	Aribidean	Hala-holakoa	
5.2. Gizarte Berrikuntza Euskadin	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
5.3. Euskal Administrazioaren analisi prospektiboa	2020/06/30	Hasi gabe	Hobetzeko modukoa	



Izenburua	Amaiera data	Egoera	Balorazioa	
6. ardatza. Kudeaketa aurreratua				
Antolamendua egokitzea				
6.1. Euskal sektore publikoaren Lege-proposamena	2018/12/31	Amaituta	Positiboa	
6.2. Xedapen Orokorrak egiteko prozeduraren legea	2020/01/01	Amaituta	Positiboa	
6.3. Euskal sektore publikoa berrantolatzea	2020/12/31	Hasi gabe	Hobetzeko modukoa	
6.4. Kide anitzeko organoen eta Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren ebaluazioa eta hobekuntza	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
Eraldaketa digitala				
7.1. Zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia	2020/12/31	Amaituta	Hala-holakoa	
7.2. Administrazio Elektronikoaren Plataforma	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
7.3. IKTen konbergentzia Plana	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
Aurrerabide				
8.1. Aurrerabideren eredia	2019/03/29	Amaituta	Positiboa	
8.2. Aurrerabide ebaluazioak	2020/12/18	Amaituta	Hala-holakoa	
8.3. Aurrerabide lankide-sarea	2020/12/18	Amaituta	Positiboa	
Administrazioen arteko lankidetzak				
9.1. Administrazioen arteko lankidetzak	2020/12/22	Amaituta	Positiboa	
9.2. Elkarreragingarritasunerako nodoa	2020/12/31	Amaituta	Positiboa	
9.3. Identifikazioa eta sinadura	2020/12/22	Amaituta	Positiboa	
Pertsonak				
10.1. Euskal Enplegu Publikoaren Legea	2020/01/01	Amaituta	Positiboa	
10.2. EAEAOren enplegu plana	2020/12/31	Aribidean	Positiboa	
10.3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana	2020/01/01	Aribidean	Positiboa	
10.4. LPZ baloratzea	2019/12/01	Aribidean	Positiboa	



Gobernantza eta
Berrikuntza **Publikoko 2020**
Plan Estrategikoa

Plan Estratégico de
Gobernanza e Innovación
Pública 2020